



LG E510

-aren erabiltzailearen eskuliburua

Informazio orokorra

<LGren bezeroentzako informazio-zentroa>

902-500-234

* Ziurtatu zenbakia zuzena dela, deitu aurretik

Wi-Fi (WLAN)

Ekipo hau Europako herrialde guztietan erabil daiteke. WLAN eraikinen barruan erabil daiteke mugarik gabe EB osoan, baina Frantzian, Errusian eta Ukrainan ezin da kanpoaldean erabili.

P/N : MFL0000000 (1.0)

www.lg.com

Euskarlelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua






LG-E510 Erabiltzailearen eskuliburua

Eskuliburu honek telefonoarekin lehen urratsak ematen lagunduko dizu. Informazio gehiago nahi baduzu, joan www.lg.com gunera.

- Eskuliburu honen zatiren bat agian ezin zaio aplikatu telefonoari; hori telefonoaren softwarearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da.
- Telefono hau ez da gomendagarria itsuentzat, teklatura ukipen-pantailan baitu.
- Copyright ©2011 LG Electronics, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta. LG eta LGren logotipoa LG Group-en eta horri lotutako erakundeen marka komertzial erregistratuak dira. Gainerako marka komertzialak dagozkien jabeenak dira.
- Google®, Google Maps®, Gmail®, YouTube®, Google Talk® y Android Market® Google, Inc. enpresaren marka komertzialak dira.



Edukiak

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak	7
Ohar garrantzitsua	19
Telefonoa ezagutzea	36
SIM txartela eta bateria sartzea	39
Telefonoa kargatzea	41
Memoria-txartela instalatzea	41
Memoria-txartela formateatzea	43
Hasierako pantaila	45
Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak.....	45
Telefonoa blokeatzea.....	46
Pantaila desblokeatzea.....	47
Modu isila.....	47
Hasiera.....	47
Hasierako pantailari widget-ak gehitzea.....	49
Duela gutxi erabilitako aplikazioetara itzultzea.....	50
Egoera-barra	51
Egoera-barra ikustea.....	52
Pantailako teklatura.....	56
Letra azentudunak idaztea....	57
Googleko kontu bat konfiguratzea.....	58
WiFi-a.....	60
WiFi sareak aktibatzea.....	60
WiFi sareetara konektatzea	60
Aktibatu telefonoaren datu-konexioa.....	61
USBaren ainguratzea eta WiFi eramangarriaren eremua konfiguratzea.....	62
Telefonoaren sareko datu-konexioa USB bidez partekatzea:.....	63

USBa ainguratzea eta datuak trukatzeko.....	64	On-Screen Phone-ren ikonoak.....	70	Deiak	76
Telefonoaren sareko datuen konexioa WiFi eramangarriko eremu gisa partekatzeko:.....	65	On-Screen Phone-ren funtzioak.....	70	Deitzea	76
WiFi eramangarriaren eremuaren izena aldatzeko edo babesteko	65	On-Screen Phone ordenagailuan instalatzea..	72	Kontaktuei deitzea	76
WiFi Direct aktibatzea SmartShare bidez partekatzeko	67	Telefono mugikorra ordenagailura konektatzea	72	Dei bati erantzutea edo ez onartzea	76
WiFi Cast erabiltzea	69	Telefonoa ordenagailura konektatuta dagoen egiaztatzea	74	Deiaren bolumena doitzea.....	77
On-Screen Phone	70	Telefonoa ordenagailutik deskonektatzea	74	Bigarren deia egitea	77
On-Screen Phone erabiltzea.....	70			Deien erregistroak ikustea..	78
				Deien doikuntzak	79
				Kontaktuak	80
				Kontaktu bat bilatzea.....	80

Edukiak

Kontaktu berri bat gehitzea.....	80	Posta elektronikoa eta Cuentas pantaila irekitzea.....	86	Telefonotik kontuak ezabatzea.....	94
Gogoko kontaktua.....	81	Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea.....	88	Kamera.....	95
Eraman telefono zaharreko kontaktuak telefono berrira.....	82	Kontuko karpetekin lan egitea.....	90	Bisorea ezagutzea.....	95
Mezuak/Posta elektronikoa.....	83	Posta elektronikoko kontuak gehitzea eta editatzea.....	91	Argazkiak azkar ateratzea.	96
Mezuak.....	83	Sare sozialak.....	92	Argazkia atera ondoren.....	96
Mezuak bidaltzea.....	83	Zure kontua gehitzea telefonoari.....	92	Konfigurazio aurreratua erabiltzea.....	97
Izenaren arabera antolatzea.....	84	Zure egoera ikustea eta eguneratzea.....	93	Gordetako argazkiak ikustea.....	100
Aurpegierak erabiltzea.....	85			Bideokamera.....	102
Mezuen doikuntzak aldatzea.....	85			Bisorea ezagutzea.....	102

Bideo bat azkar egitea ...	103	Abesti bat		Irratia entzutea.....	117
Bideo bat grabatu		erreproduzitzea.....	109	Tresnak	118
ondoren.....	103	Fitxategiak transferitzea		Alarma bat ezartzea	118
Konfigurazio aurreratua		USB biltegitratze		Kalkulagailua erabiltzea....	118
erabiltzea.....	104	masiborako gailuen		Egutegian gertaerak	
Gordetako bideoak		bidez	111	gehitzea	119
ikustea	105	Nola gorde telefonoan		Egutegiaren ikuspegia	
Bolumena doitzea bideo		musika- edo bideo-		aldatzea.....	120
bat ikustean	106	fitxategiak.....	112	Polaris Viewer	120
Multimedia.....	107	Telefonotik datuak		Ahots-grabagailua	121
Modo de visualización ...	107	bidaltzea Bluetooth		Soinua edo ahotsa	
Ikuspegi kronologikoa....	107	teknologia erabiliz.....	113	grabatzea.....	121
SmartShare erabiltzea	108	Irratia.....	115	Ahots-grabazioa	
Musika	109	Irrati-kateak bilatzea ...	116	bidaltzea	122
		Kateak berrezartzea.....	117		

Edukiak

Sarea..... 123

Nabigatzailea..... 123

Web tresna-barra
erabiltzea..... 123

Aukerak erabiltzea..... 124

Doikuntzak..... 126

Haririk gabeko
konexioak.....126

Deien doikuntzak..... 128

Soinua..... 130

Pantaila..... 132

Kokapena eta
segurtasuna.....132

Aplikazioak..... 134

Kontuak eta
sinkronizazioa..... 135

Pribatutasuna..... 135

Biltegitratzea..... 136

Hizkuntza eta teklatura..... 137

Ahotsaren sarrera eta
irteera 137

Irisgarritasuna 139

Data eta ordua 140

Telefonoari buruz 140

Softwarea eguneratzea 141

Telefonoaren softwarea
eguneratzea 141

DivX Mobile 143

Osagarriak 145

Datu teknikoak 146

Arazoak konpontzea 147

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

Irakurri jarraibide erraz hauek. Ez ezagutzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke.

Irrati-maiztasuneko energiarekiko esposizioa

Irrati-uhinen eraginpean egoteari eta SARI (Specific Absorption Rate, absorzio espezifikokoaren tasa) buruzko informazioa. LG-E510 telefono mugikorraren diseinuak betetzen ditu irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion segurtasun-araudiak. Pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten

jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira arau horiek.

- Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absorzio espezifikokoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren frekuentzia-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SAREN probak, metodo estandarra erabiliz.

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- LG telefono-modelo batetik bestera SARen mailan aldea izan badaiteke ere, irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion direktiba garrantzitsuetara egokitzeko moduan diseinatu dira telefono guztiak.
- ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SARen balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.
- Telefono-modelo hau belarran erabiltzeko DASY4-k ebaluatu duen SARen mailarik altuena 0,713 W/kg (10 g) da, eta gorputzaren kontra garraiatzeko baliorik altuena, berriz, 1,12 W/kg (10 g).
- IEEE (Institute of Electrical and Electronics Engineers) Ingeniari Elektrikoen eta Elektronikoen Institutuak gomendatutako SAR muga-balioak oinarri hartu dituzten herrialdeetan/eskualdeetan bizi direnentzako SAR datuei buruzko informazioa: 1,6 W/kg ehun gramo bakoitzeko (1).

Produktua zaintzea eta mantentze-lanak

OHARRA

Telefono-modelo honetan erabiltzeko onartu diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak baino ez erabili. Bestela, telefonoari dagozkion onarpen edo bermeak baliorik gabe gera daitezke, eta hori arriskutsua izan liteke.

- Ez desmuntatu gailua. Konpondu behar bada, eraman gaitutako zerbitzu tekniko batera.

- Bermearen barruan egiten diren konponketetan, LGren arabera, ordezeko plaka edo pieza berriak edota konponduak sar daitezke, betiere ordeztutako piezen funtzionalitatea badute.
- Ekipoa tresna elektrikoetatik (telebista, irratia edota ordenagailu pertsonala) urrun eduki.
- Ez utzi ekipoa leku beroetan (erradiadore edo labeen ondoan).
- Ez dadila eror.

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Ez utzi telefonoa bibrazio mekanikoen mende. Ez kolpatu.
- Itzali telefonoa araudi bereziek hala eskatzen duten lekuetan. Adibidez, ez erabili telefonoa ospitaleetan, tresna mediko sentikorrei eragin baitiezaieke.
- Telefonoa kargatzen ari denean, ez ukitu telefonoa eskuak bustiak badituzu. Deskarga elektrikoa jasan eta telefonoa honda dezakezu.
- Ez kargatu telefonoa material sukoia hurbil badago; berotu, eta sute bat eragin dezake.
- Erabili zapi lehor bat unitatearen kanpoko aldea garbitzeko (ez erabili bentzenorik, disolbatzailerik, alkoholik edo antzeko disolbatzailerik).
- Ez kargatu telefonoa gainazal barrubigunen gainean.
- Behar bezala aireztatutako eremuetan kargatu behar da telefonoa.
- Ez utzi telefonoa ke edo hauts asko dagoen tokietan.
- Urrundu telefonoa kreditu-txarteletatik edo garraio-txarteletatik, haien banda magnetikoaren informazioa honda baitezake.

- Ez kolpatu pantaila objektu puntadunekin, telefonoa honda daiteke.
 - Babestu telefonoa uretatik eta hezetasunetik.
 - Osagarriak kontuz erabili (entzungailuak, adibidez). Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.
 - Kristala pitzatuta eta ezpalduta badago edo printzak baditu, ez erabili, ez ukitu eta ez saiatu kentzen edo konpontzen. Bermeak ez ditu estaltzen gailua gaizki erabiltzeagatik pantailan egindako kalteak.
- Ez erabili gailua gorputzarekin kontaktuan denbora luzez. Funtzionamendu-modu normalean, baliteke produktuaren tenperaturak gora egitea eta azala mintzea edo erretzea.

Telefonoaren funtzionamendu eraginkorra

Gailu elektronikoak

Telefono mugikor guztiek sor ditzakete beste gailu batzuen errendimenduari eragin diezaieketen interferentziak.

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu baimenik eskatu gabe. Ez ipini telefonoa taupada-markagailuaren gainean, alegia, ez ipini alkandoraren poltsikoan, adibidez.
- Telefono mugikorrek zenbait audiofono honda ditzakete.
- Telebista, irrati, ordenagailu eta abarretan ere interferentzia txikiak eragin ditzakete.

Bide-segurtasuna

Egin kasu gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruzko legeei eta tokiko arauari.

- Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.
- Gidatu arreta osoz.
- Deiak egin edo deiei erantzun baino lehen, irten errepidetik eta aparkatu, errepidearen kondizioen arabera.

- Irrati-maiztasunak ibilgailuaren sistema elektronikoa batzuetan eragin dezake (autoko irratia edo segurtasun-ekipoa).
- Ibilgailuak airbag-a badu, ez oztoporik jarri haririk gabeko ekipo eramangarriekin edo finkoekin. Horien ondorioz, airbag-ak huts egin dezake, eta larri zauritu zaitezke.
- Klean zaudela musika entzuten baduzu, ziurtatu bolumenaren intentsitatea arazoizkoa dela, zure inguruan gertatzen denaz jabetu zaitez. Oso garrantzitsua da hori, batik bat, zirkulazio-bideetatik hurbil.

Kalteak entzumenean

Bolumen altuko soinuak entzuten denbora askoz egonez gero, baliteke zure belarriek kalteak jasatea. Horregatik, telefonoa belarrietatik hurbil ez piztea eta itzaltzea gomendatzen dizugu. Horrez gain, musikaren eta deien bolumena arazoizko mailan ezartzea gomendatzen dizugu.

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Entzungailuak erabiltzen badituzu, jaitsi bolumena hurbiletik hitz egiten dizutenei entzuten ez badiezu edo zure albokoak zu entzuten ari zarena entzuten badu.

OHARRA: entzungailuen soinua eta presioa neurritz gainekoa badira, entzumen-galera gerta daiteke.

Beirazko piezak

Zure telefono mugikorraren pieza batzuk beirazkoak dira. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handi bat hartzen badu.

Beira apurtzen bada, ez ukitu, eta ez saiatu kentzen. Ez erabili zure telefonoa hornitzaile baimendu batek kristala ordeztu arte.

Eraispenak

Ez erabili telefonoa eraispenak egiten diren bitartean. Errespetatu murrizketak eta jarraitu arauai.

Lehergaiak egon litezkeen inguruak

- Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan.

- Ez erabili produktu kimiko edo erregaietatik hurbil.
- Ez garraiatu edo ez gorde lehergai, likido edo gas sukoirik telefono mugikorra eta haren osagarriak dauden ibilgailuko konpartimentuan.

Hegazkinetan

Haririk gabeko gailuek interferentziak eragin ditzakete hegazkinetan.

- Itzali telefono mugikorra hegazkinean sartu aurretik.

- Ez erabili lurrean tripulazioaren baimenik gabe.

Haurrak

Ez utzi telefonoa haur txikien eskueran. Toki seguruetan gorde. Pieza txikiak ditu telefonoak, eta, haiek irensten badituzte, itozteko arriskua dute.

Larrialdi-deiak

Beharbada, larrialdi-deiak ezingo dira erabili telefonia mugikorreko sare guztietan. Beraz, ezin duzu telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko.

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

Ez desmuntatu bateria, eta ez egin zirkuitulaburrik. Galdetu zure inguruko zerbitzu-hornitzaileari.

Bateriari buruzko informazioa eta mantentze-lanak

- Bateriak ez du zertan erabat deskargatuta egon berriz kargatzeko. Beste bateria-sistemetan ez bezala, ez dago bateriaren errendimenduari kalte egin diezaiokeen memoria-efekturik.
- LGren bateriak eta kargagailuak baino ez erabili. Bateriaren bizitza ahalik eta gehiena luzatzeko diseinatu dira LGren kargagailuak.
- Eduki garbi bateriaren kontaktu metalikoak.
- Aldatu bateria behar bezala ez dabilenean. Bateria ehunka aldiz karga daiteke hondatu baino lehen.
- Aspaldian erabili ez baduzu, kargatu egin behar duzu bateria, ahalik eta funtzionaltasun handiena izan dezan.
- Ez jarri bateria-kargagailua eguzkitan, eta ez erabili ingurune hezeetan (komunean, adibidez).

- Ez utzi bateria toki hotz edo beroetan, errendimendua txikitu daiteke.
- Bateria desegoki batekin ordeztuz gero, lehertzeko arriskua dago.
- Bete fabrikatzailearen jarraibideak bateriak ezabatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.
- Bateria ordeztu behar baduzu, eraman homitzailearengana edo hurbilen duzun LG Electronics-en zerbitzu-puntu baimendura, laguntza jasotzeko.
- Deskonektatu beti kargagailua korronehartunetik telefonoa kargatu ondoren, kargagailuak energia alferrik kontsumi ez dezan.
- Sarearen konfigurazioaren, erabilera-ereduen, bateria-motaren eta ingurumen-kondizioen araberakoa da bateriaren iraupena.



Nola bota gailu elektriko eta elektroniko zaharrak

- 1 Ezabatutako zaborrontziaren irudia duten produktuek 2002/96/EE Direktiba bete behar dute.
- 2 Gailu elektriko edo elektronikoak ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu arrunten bidez, eta gobernuak edo tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneeetara eraman behar dira.
- 3 Gailu erabilezinak behar bezala jaso eta tratatzen badira, ingurumenari eta osasun publikoari sor diezazkieketen arriskuak saihestu daitezke.
- 4 Gailu erabilezinak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.



Bateriak eta metagailuak botatzeko modua

- 1 Zirriborratutako zakarrontzi gurgildun honen marrazkia badu zure produktuaren bateriak/ metagailuak, 2006/66/EE Europako Direktibaren babesa du.
- 2 Bateriak $\%$ 0,0005 merkurio (Hg), $\%$ 0,002 kadmio (Cd) edo $\%$ 0,004 berun (Pb) baino gehiago badu, ikur hori agertuko da merkurioaren, kadmioaren eta berunaren IKUR kimikoen ondoan.
- 3 Bateria/Metagailuak ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu arrunten bidez, eta gobernuak edo tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneeetara eraman behar dira.
- 4 Bateriak eta metagailuak behar bezala botatzen badira, ingurumenari, animaliei eta osasun publikoari arriskuak sortzea saihestu daiteke.
- 5 Bateria eta metagailu erabilezinak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.

Ohar garrantzitsua

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuari deitu edo telefonoa zerbitzu teknikoari eraman aurretik, egiaztatu zure telefonoak dituen arazoak atal honetan deskribatzen diren.

1. Telefonoaren memoria

Telefonoaren memorian erabilgarri dagoen espazioa % 10a baino txikiagoa denean, telefonoak ezin du mezu berririk jaso. Telefonoaren memoria egiaztatu eta datu batzuk, aplikazioak edo mezuak, ezabatu behar dira, memorian espazio gehiago izateko.

Aplikazioak nola administratu

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**.
- 2 Aplikazioak bistaratzean, mugitu eta hautatu desinstalatu nahi duzun aplikazioa.
- 3 Ukitu **Desinstalar** eta, gero, **Aceptar**, hautatutako aplikazioa desinstalatzeko.

Ohar garrantzitsua

2. Bateriaren iraupena optimizatzea

Karga artean bateriak duen iraupena handitzeko, bigarren mailan etengabe exekutatuta izan behar ez dituzun funtzioak deskonekta ditzakezu.

Halaber, aplikazioek eta sistemaren baliabideek bateriaren energia nola kontsumitzen duten gainbegira dezakezu.

Bateriaren iraupena luzatu

- Desaktibatu erabiltzen ari ez zaren irrati bidezko komunikazioak. Ez bazara WiFi-aren, Bluetooth-aren edo GPSaren funtzioak erabiltzen ari, itzal itzazu. 20

- Gutxitu pantailaren distira eta ezar ezazu pantailaren itzarote-denbora laburragoa.
- Desaktibatu Google Mail[®]-ren, egutegiaren, kontaktuen eta beste aplikazioen sinkronizazioa.
- Deskargatutako zenbait aplikaziok bateriaren iraupena gutxitu dezakete.

Bateriaren karga-maila egiaztatzea.

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes > Acerca del teléfono > Estado**.

- 2 Pantailaren goiko aldean ikus daitezke bateriaren egoera (kargatzen edo deskargatzen) eta maila (kargaren ehuneko).

Bateria zerk erabiltzen duen gainbegiratzea eta kontrolatzea

- 1 Hasierako pantailan, ukitu Aplicaciones menua, eta hautatu **Ajustes > Acerca del teléfono > Uso de la batería.**
- 2 Bateria erabiltzeko geratzen den denbora pantailaren goiko aldean bistaratzen da. Azkenekoz elikadura-iturri bati konektatu zenetik igarotako denbora adierazten dizu, edo, elikadura-iturri bati konektatuta badago, bateria azkenekoz kargatu zenetik igaro den denbora. Pantailaren

erdialdean agertzen da bateria erabiltzen duten aplikazioak edo zerbitzuak, gehien erabiltzen duenetik gutxienekora antolatuta.

Ohar garrantzitsua

3. Iturri irekiko sistema eragilea instalatzea

Telefonoan, fabrikatzaileak emandako sistema eragilea (SE) erabili beharrian iturri irekiko SE bat instalatzen eta erabiltzen baduzu, gerta daiteke telefonoak ongi ez funtzionatzea.

OHARRA

Fabrikatzaileak eman duen sistema eragilearen orde, beste bat instalatzen eta erabiltzen baduzu, bermearen estaldurarik gabe geratuko da telefonoa.

OHARRA

telefonoa eta datu pertsonalak babesteko, aplikazioak konfiantzazko iturrietatik soilik deskargatu; esaterako, Android Market-etik. Aplikazioak oker instalatu badituzu telefonoan, litekeena da horrek ongi ez funtzionatzea edo akats larriren bat gertatzea. Aplikazio horiek eta haien datu eta telefono-doikuntza guztiak desinstalatu behar dituzu.

4. Desblokeatze-eredua erabiltzea

Telefonoa babesteko balio duen desblokeatze-eredua ezartzeko da. Pantailaren desblokeatze-eredua sortzen lagunduko dizuten pantailak irekitzen ditu.

Kontuz: desblokeatze-eredu bat ezarri aurretik, Gmail-kontu bat sortu behar duzu.



OHARRA

Blokeatze-eredua erabiltzeko neurriak.

Garrantzitsua da ezarri den desblokeatze-eredua gogoratzea. Eredu okerra 5 aldiz erabiliz gero, ezingo duzu telefonora sartu. Bost aukera dituzu desblokeatze-eredua, PINa edo pasahitza sartzeko. Bost aukerak agortu badituzu, 30 segundo itxaron ondoren saia zaitezke berriro.

Ohar garrantzitsua

Desblokeatze-eredua ahazten baduzu:

Telefonotik zure Google-kontuan saioa hasi eta eredua sartzean bost aldiz oker sartu baduzu, ukitu ¿Has olvidado el patrón? Botoia. Ondoren, Googleko zure kontuan saioa hasteko eskatuko zaizu, telefonoa desblokeatzeko.

Ez baduzu Google-ko konturik sortu telefonoan edo ahaztu egin bazaizu, fabrikazioan ezarritako doikuntzak berrezarri beharko dituzu. Kontuz: erabat berrabiarazten baduzu, erabiltzailearen aplikazio eta datu guztiak ezabatuko dira.

Gogoratu datu garrantzitsuen segurtasun-kopia egin behar dela, telefonoa erabat berrezarri aurretik.

5. Berrezartze osoa erabiltzea

Ez badira jatorrizko doikuntzak ezartzen, erabili doikuntza guztiak berriro ezartzeko aukera, telefonoa hasieratzeko.

Telefonoa itzalita dagoela, hamar segundo baino luzaroago sakatu **bolumena jaisteko tekla eta pizteko tekla**.

Pantailan LGren logotipoa agertzen denean, askatu **pizteko** tekla.

Berrezartze osoaren pantaila agertzen denean, askatu gainerako tekla guztiak.

Ez ukitu telefonoa minutu batez, gutxienez, berrezartze osoa egiten den bitartean.

Ondoren, telefonoa itzali egingo da.

Kontuz: erabat berrabiarazten baduzu, erabiltzailearen aplikazio eta datu guztiak ezabatuko dira. Prozesu hau ezin da desegin. Gogoratu datu garrantzitsuen segurtasun-kopia egin behar dela, telefonoa erabat berrezarri aurretik.

6. WiFi sareetara konektatzea

Telefonoaren WiFi konexioa erabiltzeko, ezinbestekoa da haririk gabeko sarbide-puntu baten bidez egitea (ingelesez, "AP"). Sarbide-puntu batzuk irekita daude, eta horietara konektatzea besterik ez duzu egin behar. Beste batzuk ezkutatuta daude edo bestelako segurtasun-funtzioak dituzte. Halakoetan, telefonoa konfiguratu egin behar da puntu horietara konektatu ahal izateko.

Ohar garrantzitsua

Deskonektatu WiFi konexioa erabiltzen ari ez zarenean; hala, bateriak gehiago iraungo du.

WiFi konexioa aktibatzea eta WiFi sare bati konektatzea

- 1 Hasierako pantailan, ireki **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Configuración de WiFi**.
 - 2 Ukitu **WiFi**, funtzio hori aktibatzeko eta eskura dauden WiFi sareak bilatzen hasteko.
- Erabilgarri dauden WiFi sareen zerrenda bistaratzen da. Sare seguruak giltzarrapoi-konoarekin bistaratuko dira.

3 Ukitu sare bat horri konektatzeko.

- Sarea irekia bada, eskatuko zaizu sare horri konektatzea nahi duzula baieztatzea **Conectar** ukituta.
- Sarea babestuta badago, eskatuko zaizu pasahitza edo bestelako egiaztagiriren bat sartzea. (Sare-administratzaileari eskatu xehetasunak).

4 Egoera-barran ikusten dira WiFi konexioaren egoera adierazten duten ikonoak.

7. MicroSD txartela erabiltzea

Irudiak, musika- eta bideo-fitxategiak bezala, kanpo-memoria batean soilik gorde daitezke.

Telefonoan integratutako kamera erabiltzen hasi aurretik, ezinbestekoa da telefonoan microSD memoria-txartela txertatzea.

Memoria-txartelik txertatzen ez baduzu, ezingo dituzu gorde kamerarekin egindako argazkiak edo bideoak.

OHARRA

Ez ezazu memoria-txartela sartu edo atera telefonoa piztuta dagoenean. Hala eginez gero, kalte egin diezaiokezu memoria-txartelari eta telefonoari; halaber, memoria-txartelean gordeta dauden datuak ere honda daitezke. Memoria-txartela era seguruan ateratzeko, ukitu **Aplicaciones** menua hasierako pantailan, eta, ondoren, hautatu **Ajustes > Almacenamiento > Desactivar tarjeta SD**.

Ohar garrantzitsua

8. Aplikazioak irekitzea eta aldatzea

Android-ekin erraza da hainbat zeregin egitea, aldi berean aplikazio bat baino gehiago egin daitezkeelako. Ez dago aplikazio batetik atera beharrik beste bat irekitzeko. Zenbait aplikazio ireki ditzakezu aldi berean, eta batetik bestera aldatu. Android-ek aplikazio bakoitza kudeatzen du, eta bakoitza behar denean gelditzen edo abiarazten du; hala, aktibo ez dauden aplikazioek ez dute baliabiderik kontsumituko beharrik ez dagoenean.

Aplikazioak atzematea:

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**.
- 2 Joan nahi den aplikaziora, eta ukitu **Parar**, erabiltzeari uzteko.

IRADOKIZUNA: azkenak erabilitako aplikazioetara itzultzeko, luze sakatu hasierako tekla. Duela gutxi erabilitako aplikazioen zerrenda agertuko da pantailan.

9. LG PC Suite kopiatzea SD txartel batetik

LG PC Suite IV programari esker, zure telefono mugikorra ordenagailu batera konekta dezakezu, USB datu-komunikazioen kable baten bidez. Konektatu ondoren, telefono mugikorraren funtzioak ordenagailuan erabili ahal izango dituzu.

LG PC Suite IV-ren funtzio nagusiak

- Telefonoan datuak erraz sortzea, editatzea eta ezabatzea
- Telefono mugikorreko datuak ordenagailukoekin sinkronizatzea (kontaktuak, egutegia, SMS mezuak, gogokoak eta deien erregistroa)

- Multimedia-fitxategiak (argazkiak, bideoak, musika) erraz transferitzea ordenagailu baten eta telefono baten artean, horiek arrastatu eta askatuta.
- Telefonoko SMS mezuak ordenagailu batera transferitzea
- Softwarea eguneratzea datuak galdu gabe..

LG PC Suite microSD memoria-txartel batetik instalatzea

- 1 Sartu microSD memoria-txartela telefonoan (litekeena da dagoeneko sartuta egotea).

Ohar garrantzitsua

- 2 USB datu-kablea konektatu aurretik, egiaztatu **Almacenamiento masivo** modua aktibatuta dagoela telefonoan. (Aplikazioen menuan, hautatu **Ajustes**, eta, ondoren, hautatu **Almacenamiento masivo** laukitxo.)
- 3 Erabili USB datu-kablea telefonoa ordenagailura konektatzeko.
- 4
 - Egoera-barran, arrastatu USB ikonoa.
 - Hautatu **Conectado por USB** eta **Activar almacenamiento USB**.
 - Orain zure ordenagailuan ikus ditzakezu biltegiatze masiboko edukia, eta fitxategiak transferitu.
- 5
 - Kopiatu LGPCSuiteIV karpetaordenagailuaren biltegiatze masiboan.
 - Exekutatu LGInstaller.exe fitxategia ordenagailuan, eta egin kasu jarraibideei.

* LG PC Suite IV-ren instalazioa amaitzen duzunean, desaktibatu LG PC Suite IV exekutatzeko **Almacenamiento masivo** modua.

OHARRA: ez ezabatu memoria-txartelean dagoen beste programa-fitxategirik, horrek aurrez instalatutako aplikazioak kaltetzea eragin baitezake.

10. Telefonoa ordenagailu batera USB bidez konektatzea

OHARRA: USB kablearen bidez telefonoa ordenagailuarekin sinkronizatzeko, LG PC Suite programa instalatu behar duzu ordenagailuan. Deskargatu programa hori LGren webgunean (www.lg.com). Joan www.lg.com webgunera, eta hautatu zure eskualdea, herrialdea eta hizkuntza. Informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu webguneko orriak. PC Suite microSD

txartelean dagoenez, ordenagailuan koptatu dezakezu.

LG-E510ek ez ditu hauek onartzen:

- LG Air Sync (Web Sync, R-Click)
- Egin gabeko zereginak egutegian
- Oharrak
- Java aplikazioak

PC Suite IV instalatu ondoren, erabiltzailearen eskuliburua aurkituko duzu Ayuda menuan.

Ohar garrantzitsua

- 1 Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuaren USB ataka batera konektatzeko. Konexioa egin ondoren, USB konexio bat egin dela adierazten duen jakinarazpena jasoko duzu.
- 2 Ireki egoera-barra, eta ukitu Conectado por USB.
- 3 Ukitu **Activar almacenamiento USB**, telefonoaren microSD txartelaren eta ordenagailuaren artean fitxategiak mugitzea nahi duzula baieztatzeko.

USB biltegitratze-sistema gisa konektatzen bada telefonoa, jakinarazpen bat jasoko duzu. Telefonoaren microSD txartela

unitate gisa agertuko da ordenagailuan. Une horretan, fitxategiak kopiatu ditzakezu microSD txarteletik edo alderantziz.

OHARRA: PC Suite IV desinstalatzean, USB eta Bluetooth kontrolagailuak ez dira automatikoki ezabatzen. Eskuz desinstalatu beharko dituzu.

IRADOKIZUNA: telefonoan microSD txartel bat berriz erabiltzeko, jakinarazpenen ontzia ireki behar da, eta **Desactivar almacenamiento USB** ukitu.

Denbora-tarte horretan ezingo duzu telefonotik microSD txartelera sartu. Beraz, ezingo dituzu erabili microSD txartelean oinarritzen diren aplikazioak, hala nola kamera, galeria eta musika.

Telefonoa ordenagailutik deskonektatzeko, jarraitu USB gailuak behar bezala deskonektatzeko eta txarteleko informazioa galtzea saihesteko ordenagailuak emango dizkizun jarraibideei.

- 1 Deskonektatu modu seguruan USB gailua ordenagailutik.
- 2 Ireki jakinarazpenen ontzia, eta ukitu **Desactivar almacenamiento USB**.

- 3 Irekiko den elkarrizketa-koadroan, ukitu **Desactivar**.

11. Pantaila desblokeatzea datu-konexio bat erabili bitartean

Pantaila ilundu egingo da datu-konexioa erabiltzen ari den bitartean denbora-tarte batez ukitzen ez bada. LCD pantaila berriz pizteko, nahikoa da pantaila ukitzea.

Ohar garrantzitsua

12. Eutsi zuzen telefonoari

Eutsi zuzen telefonoari, ohiko telefono bati helduko zeniokeen bezala. LG-E510 telefonoak barne-antena bat du. Kontuz ibili telefonoaren atzeko aldeari kalterik edo arrastorik egin gabe, horrek errendimendua murriztuko bailioke. Deiak egitean edo jasotzean edo datuak bidaltzean edo jasotzean, saiatu ez eusten telefonoaren beheko zatiari, han baitago antena. Horrek deien kalitatean eragin lezake.

13. Pantaila blokeatzen denean

Pantaila blokeatu egiten bada edo telefonoak ez badu erantzuten erabiltzen saiatzean: kendu bateria, sartu berriro, eta piztu telefonoa. Hala ere ez badabil, jar zaitetz harremanetan zerbitzuen zentroarekin.

14. Ez konektatu telefonoa ordenagailua pizten edo itzaltzen duzun bitartean.

Ziurtatu telefonotik ordenagailura doan datu-kablea deskonektatu duzula. Konektatuta utziz gero, ordenagailuan erroreak gerta daitezke.

Telefonoa ezagutzea


Telefonoa pizteko, sakatu pizteko tekla 3 segundoz. Telefonoa itzaltzeko, sakatu pizteko tekla 3 segundoz, eta ukitu **Apagar** eta **Aceptar**.

Bozgorailua/hargailua



Pizteko/blokeatzeko tekla

Telefonoa pizten eta itzaltzen du tekla luze sakatuta. Pantaila itzaltzen eta blokeatzen du.



Hurbiltasun-sentsorea

Menu-tekla 


Egiaztatu dauden aukerak.

Hasierako tekla 

Beste pantaila batetik hasierara itzultzeko.

Atzera tekla 

Aurreko orrira itzultzeko.



Bolumen-teklak

Hasierako pantailan: kontrolatu txirrinaren bolumena.

- Telefonoz hitz egiten ari zarela: kontrolatu entzungailuaren bolumena.
- Pista bat erreproduzitzean: kontrolatu bolumena etengabe.

Entzungailu estereoaren konektorea



Pizteko/blokeatzeko tekla



Telefonoa ezagutzea

OHARRA: hurbiltasun-sentsorea


Deiak jasotzean eta egitean, sentsore horrek, automatikoki, hondoko argia itzaltzen du, eta ukipen-teklatura blokeatzen du telefonoa belarriaren ondoan dagoela detektatzean. Horrek luzatu egiten du bateriaren iraupena, eta deiak egitean ukipen-teklatura nahi gabe aktibatzea eragozten du.

OHARRA

Telefonoaren gainean objektu astunen bat jarriz gero edo haren gainean eseriz gero, kaltetuak gerta daitezke LCD pantaila eta ukipen-pantailaren funtzioa. Ez estali LCD pantailaren hurbiltasun-sentsorearen babes-geruza. Horrek sentsoreak gaizki funtzionatzea eragin dezake.


SIM txartela eta bateria sartzea

- 1 Atzeko estalkia kentzeko, ondo eutsi telefonoari eskuan. Beste eskuarekin, irmo sakatu hatz lodiarekin atzeko estalkia. Ondoren, altxa bateriaren estalkia.



Telefona ezagutzea

- 2 Lerratu SIM txartela SIM txartelerako zirrikitan. Ziurtatu txartelaren urre-koloreko kontaktuak behera begira daudela.





- 3 Sartu bateria, telefonoaren urre-koloreko kontaktuak eta bateriarenak lerrokatuz.



- 4 Ordezkatu telefonoaren atzeko estalkia.

Telefona kargatzea

Sartu kargagailua, eta entxufatu elektrizitate-hargune batera. LG-E510 telefona  ikurri agertu arte kargatu behar da.



OHARRA: lehen karga osorik egin behar da, bateriaren balio-bizitza hobetzeko.

Memoria-txartela instalatzea


Multimedia-fitxategiak gordetzeko – telefonoko kamerarekin hartutako argazkiak gordetzeko, adibidez–, memoria-txartela sartu behar da telefonoan.

OHARRA: LG-E510 telefonoak 32 GB-rainoko memoria-txartelak onartzen ditu.

Telefona ezagutzea

Memoria-txartela sartzeko:

1 Itzali telefona memoria-txartel bat sartu edo atera aurretik. Kendu atzeko estalkia.



2 Sartu memoria-txartela zirrikituan. Egiaztatu urre-koloreko kontaktu-eremua beherantz jarrita dagoela.





OHARRA

Ez ezazu memoria-txartela sartu edo atera telefonoa piztuta dagoenean. Hala eginez gero, kalte egin diezaiokezu memoria-txartelari eta telefonoari; halaber, memoria-txartelean gordeta dauden datuak ere honda daitezke.

Memoria-txartela formateatzea

Baliteke memoria-txartela dagoeneko formateatua egotea. Hala ez bada, formateatu egin beharko duzu erabili ahal izateko.

OHARRA: formateatzean, txarteleko datu guztiak ezabatuko dira.

- 1** Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa aplikazioen menua irekitzeko.
- 2** Zoaz **Ajustes > Almacenamiento** aukeretara, ukitu, eta, gero, hautatu **Almacenamiento masivo**.

Telefonoa ezagutzea

- 3 Ukitu **Desactivar tarjeta SD**.
- 4 Ukitu **Borrar tarjeta SD**, eta, ondoren, egiaztatu egindako aukera.
- 5 Desblokeatze-eredua konfiguratu baduzu, sar ezazu, eta hautatu **Borrar todo**.
Txartela formateatu egingo da, eta prest egongo da erabiltzeko.

OHARRA: memoria-txartelean edukirik badago, karpeten egitura aldatu egingo da formateatzean, fitxategi guztiak ezabatuko baitira.

Hasierako pantaila

Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak

Hona hemen telefonoaren bidez nabigatzeko iradokizun batzuk.

Ukitzea: menu edo aukera bat hautatzeko, edo aplikazio bat irekitzeko, egin ukitu bat.

Luze sakatzea: aukera-menu bat irekitzeko edo mugitu nahi duzun objektuari heltzeko, ukitu ezazu, eta luze sakatu.

Arrastatzea: zerrenda batean gora eta behera mugitzeko edo poliki mugitzeko, arrastatu hatza ukipen-pantailan zehar.

Mugimendu azkarra: zerrenda batean azkar lerratze edo azkar mugitzeko, egin lerratze-mugimendu azkarra ukipen-pantailan (arrastatu azkar hatza, eta askatu).

OHARRA:

- Elementu bat hautatzeko, ukitu ikonoaren erdialdea.
- Ez sakatu gogorregi. Pantaila sentikorra da, eta ukitu arin eta irmoak detektatzeko gai da.
- Erabili atzamarraren punta nahi duzun aukera ukitzeko. Saiatu beste tekларik ez ukitzen.

Hasierako pantaila

Telefonoa blokeatzea

Ez bazara ari LG-E510 gailua erabiltzen, sakatu pizteko tekla, telefonoa blokeatzeko. Horri esker, pantaila ez da istripuz sakatuko, eta bateria aurreztuko du.

Horrez gain, denbora batean ez baduzu telefonoa erabiltzen, blokeo-pantaila agertuko da hasierako pantailaren edo ikusten ari zaren pantailaren ordez, bateriaren iraupena luzatzeko.

Eredua doitzen ari zarenean programaren bat exekutatzen ari bada, baliteke blokeo-moduan ere exekutatzen jarraitzea.

Gomendagarria da blokeo-moduan sartu aurretik programa guztietatik ateratzea, beharrezkoak ez diren kargatzeak egin ez daitezten (esaterako, telefono-deiak, webera sartzea eta datu-komunikazioak).

Desblokeatze-eredu bat ezartzea: zure desblokeatze-eredua sor dezakezu, puntuak konektatuz. Eredu bat konfiguratzeko baduzu, telefonoaren pantaila blokeatu egingo da. Telefonoa desblokeatzeko, egin pantailan konfiguratu duzun eredua.

Kontuz: desblokeatzeko eredu bat konfiguratu aurretik, ezinbestekoa da Gmail-eko kontu bat sortzea.



Kontuz: ereduak marraztean 5 akats baino gehiago egiten badira jarraian, ezingo da telefonoa desblokeatu. Kasu horretan, zure informazio pertsonala eta deskargatutako datuak ezabatu egingo lirateke.

Pantaila desblokeatzea

LG-E510 erabiltzen ari ez bazara, blokeo-pantailara itzuliko da. Arrastatu behatza behetik gora pantaila desblokeatzeko.



Modu isila

Jakinarazpenen ontzian, ukitu  eta doitu honela .

Hasiera

Panelak ikusteko, lerratu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz.

Hasierako pantaila

Widget-ak ere erabil ditzakezu panelak pertsonalizatzeko. Gogokoen dituzun aplikazioetarako, karpetetarako eta atzeko planoetarako zuzeneko sarbideak dira widget-ak.

OHARRA: pantailako irudi batzuk ezberdinak izan daitezke telefono-hornitzailearen arabera.

Hasierako pantailaren beheko aldean, laster-teklak daude. Laster-teklen bidez, eguneroko funtzioetan erraz sar zaitezke ukitu bakarrarekin.



Ukitu **Telefono** ikonoa pantailan

ukipen bidezko teklatua agertzeko eta dei bat egiteko.



Ukitu **Contactos** ikonoa zure kontaktuak irekitzeko.



Ukitu **Mensajes** ikonoa mezuen menura sartzeko. Hemendik, mezu berri bat sor dezakezu.



Ukitu **Aplicaciones** menua pantailaren beheko aldean. Hor ikusiko dituzu instalatuta dauden aplikazio guztiak. Nahi duzun aplikazioa irekitzeko, ukitu aplikazioaren ikonoa aplikazioen zerrendan.

OHARRA: Aurrez kargatutako aplikazioak ezberdinak izan daitezke, telefonoaren softwarearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Hasierako pantailari widget-ak gehitzea

Hasierako pantailari zuzeneko sarbideak, widget-ak edo karpetak gehitu diezaiokezu, hura pertsonalizatzeko. Telefonoa erosoago erabiltzeko, erantsi zure gogoko widget-ak hasierako pantailara.

1 Hasierako pantailan, sakatu **menu-tekla**, eta hautatu **Añadir**. Hasierako pantailako zati hutsa ere sakatu dezakezu luze.

2 **Modo de edición** menuan, ukitu gehitu nahi duzun elementu-mota.

3 Adibidez, hautatu **Carpetas**, eta ukitu aukera hori.

4 Karpeta-ikono berria ikusiko duzu hasierako pantailan. Arrastatu nahi duzun paneleko edozein lekura, eta kendu hatza pantailatik.

Hasierako pantaila

IRADOKIZUNA: aplikazio baten ikonoa gehitzeko hasierako pantailan, **Aplicaciones** menuan, ukitu gehitu nahi duzun aplikazioa, eta luze sakatu.

IRADOKIZUNA: hasierako pantailan aplikazio ikono bat kentzeko, luze sakatu eta, ondoren, arrastatu hona: 

OHARRA: aurrez instalatutako aplikazioak ezin dira ezabatu. Pantailako ikonoak soilik ezabatu daitezke.

Duela gutxi erabilitako aplikazioetara itzultzea

- 1 Ukitu eta luze sakatu **hasierako** tekla. Azkenaldian erabilitako aplikazioen ikonoak dituen leihoa agertuko da.
- 2 Ukitu ireki nahi duzun aplikazioaren ikonoa. Halaber, **atzer**a tekla uki dezakezu uneko aplikaziora itzultzeko.

Egoera-barra

Pantailaren goiko aldean luzetara dago egoera-barra.



Txirrina WiFi-a Bluetooth-a GPS Datu gaituak

Ukitu eta lerratu egoera-barra beherantz.

Hasierako pantailan, sakatu **menu**-tekla, eta hautatu **Notificaciones**. WiFi-aren, Bluetooth-aren, GPSaren edo beste jakinarazpen batzuen egoera kontsultatu eta administratu dezakezu hemen.

Hasierako pantaila

Egoera-barra ikustea

Egoera-barran telefonoaren informazioa bistaratzen duten ikonoak daude. Besteak beste, seinalearen intentsitatea, mezu berririk dagoen ala ez, bateriaren karga-maila eta Bluetootha edo datu-konexioak aktibo dauden adierazten dute. Beheko taulan agertzen da egoera-barrako ikonoen esanahia.



[Egoera-barra]





Ikonoa	Deskribapena
	Ez dago SIM txartelik
	Ez dago seinalerik
	Hegazkin-modua
	WiFi sarera konektatuta dago
	Wi-Fi Direct aktibatuta dago.
	Kabledun entzungailuak

Ikonoa	Deskribapena
	Deia martxan
	Deia zain
	Telefonoa bozgorailuarekin
	Telefonoaren mikrofonoa isilduta dago
	Dei galdua





Ikonoa	Deskribapena
	Bluetooth-a aktibatuta dago
	Bluetooth gailu batera konektatuta
	Sistemaren oharra
	Alarma aktibatuta
	Ahots-postontzi berria

Ikonoa	Deskribapena
	Txirrina isilduta dago
	Bibrazio-modua
	Bateria guztiz kargatua
	Bateria kargatzen
	Datuen sarrera eta irteera

Hasierako pantaila

Ikonoa	Deskribapena
	Telefonoa ordenagailura konektatuta dago USB kable baten bidez
	Datuak deskargatzen
	Datuak kargatzen
	GPSa datuak jasotzen

Ikonoa	Deskribapena
	GPSaren kokapenaren datuak jasotzen
	On-Screen Phone konektatua
	Ez dira azaltzen beste 3 jakinarazpen
	Datuak sinkronizatzen ari dira

Ikonoa	Deskribapena
	Deskarga amaitua
	Gmail berria
	Google Talk-eko mezu berria
	Mezu berria
	Abestia erreproduzitzen ari da

Ikonoa	Deskribapena
	Datozen egunetako gertaerak
	FM irratia aktibatuta bigarren mailan
	SmartShare aktibatua
	SmartShare-a partekatzeko eskaera


Ikonoa	Deskribapena
	USBaren ainguratzea aktibo dago
	WiFi eramangarriaren eremua aktibo dago
	USBaren ainguratzea eta WiFi eramangarriaren eremua aktibo daude

Hasierako pantaila

Pantailako teklatura

Pantailako teklatuarekin ere idatzi dezakezu testua. Pantailako teklatura automatikoki agertuko da testu bat idatzi behar duzunean. Teklatura eskuz agerrarazteko, testua idatzi nahi duzun testu-eremua ukitu baino ez duzu egin behar.

Teklatuaren erabilera eta testua idaztea

 Uki ezazu ikono hori behin, idazten duzun hurrengo letra maiuskula izan dadin. Ukitu bitan, dena beti maiuskulaz idazteko.



Ukitu aukera hori zenbaki-teklatuaren eta sinboloen artean mugitzeko. Bestela, fitxa hau luze saka dezakezu, Ajustes menua ikusteko.



Ukitu aukera hau idazteko hizkuntza ikusteko, edo luze sakatu hori aldatzeko.



Ukitu aukera hau, mezu bat idaztean aurpegiera bat sartzeko. Ukitu ikono hori tarte bat sartzeko. Ukitu ikono hori lerro bat sortzeko mezuaren eremuan.

 Ukitu ikono hori aurreko karakterea ezabatzeko.

 Ukitu, pantailako teklatua ezkutatzeko.

Letra azentudunak idaztea

Testua idazteko hizkuntza gisa frantsesa edo gaztelania hautatzen baduzu, hizkuntza bakoitzaren karaktere bereziak idatz ditzakezu (adibidez, “á”).

Adibidez, “á” idazteko, luze sakatu “a” tekla, handitze-tekla handitu eta karaktere bereziak azaldu arte. Jarraian, hautatu nahi duzun karaktere berezia.

Kontuaren konfigurazioa

Zure telefonoa pizten duzun lehen aldian, sarea aktiba dezakezu Googleko kontuan saioa hasteko eta Googlen zerbitzu batzuk nola erabili nahi dituzun erabakitzeko.

Zure Googleko kontua konfiguratzeko:

* Hasi saioa Googleko kontu batean, bistaratzen den konfigurazio-pantailatik abiatuta.

edo

* Aplicaciones > hautatu Googleko aplikazio bat, Gmail, adibidez, > hautatu Crear kontu berri bat sortzeko.

Googleko kontu bat baduzu, idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, ukitu Acceder. Telefonoan Googleko kontua konfiguratu ondoren, telefonoa sareko Googleko kontuarekin sinkronizatuko da automatikoki.

Zure kontaktuak, Gmail-eko mezuak, egutegiko gertaerak eta webeko aplikazio eta zerbitzu horien beste zenbait datu zure telefonoarekin sinkronizatuko dira. (Ezartzen den sinkronizazio-konfigurazioaren arabera da hori.)

Saioa hasi ondoren, Gmail erabil dezakezu, eta telefonoak dituen Googleko zerbitzu guztiez baliatu.

Wi-Fi-a


WiFi-arekin, abiadura handiko Internetera sar daiteke, haririk gabeko sarbide-puntuako estaldurarekin. Goza ezazu kablerik gabeko Internetez, WiFi sare bat erabilita, kargu gehigarririk gabe.

WiFi sareak aktibatzea

Hasierako pantailan, ukitu jakinarazpenen ontzia eta ukitu .

Edo bestela, ukitu **Aplicación > Ajustes > Conexiones inalámbricas** eta, ondoren, **Wi-Fi** .

WiFi sareetara konektatzea

Hautatu zein WiFi sarera konektatu nahi duzun.  ikonoa ikusten baduzu, pasahitza idatzi beharko duzu konektatzeko.

OHARRA:

- WiFi estalduratik kanpoko eremu batean bazaude, eta 3G konexioa aukeratzan baduzu, kargu gehigarriak aplikatu daitezke.
- Telefonoa modu inaktibora aldatzen bada, WiFi sare batera konektatua dagoela ere, WiFi konexioa automatikoki desaktibatuko da.



- Kasu horretan, telefonoak 3G datuetarako sarbidea badu, litekeena da 3G sarera automatikoki konektatzea, eta kargu gehigarriak aplikatzea.
- LG-E510ek hauek onartzen ditu: WEP, WPA/WPA2-PSK eta EAP 802.1x segurtasuna. WiFi zerbitzuaren hornitzaileak edo sare-administratzaileak sareko segurtasun-arrazoiak direla eta zifratua konfiguratzeko badute, adierazi gakoa leihoan. Zifratua konfiguratu ez bada, leiho hori ez da agertuko. Eskatu gakoa WiFi zerbitzu-hornitzaileari edo sare-administratzaileari.

Aktibatu telefonoaren datu-konexioa.

Telefonoaren sare mugikorreko datu-konexioa ordenagailu bakarrarekin parteka dezakezu USB kable baten bidez (Anclaje de USB aukerarekin). Telefonoaren datu-konexioa gehienez beste bost gailurekin parteka dezakezu aldi berean. Horretarako, Zona WiFi portatil aukera aktibatu behar duzu telefonoan.

Telefonoak haren datu-konexioa partekatzen duenean, egoera-barran ikono bat agertzen da, eta jakinarazpenen ontzitik jakinarazpen bat ateratzen ikusiko da.

Wi-Fi-a

Ikonoa	Deskribapena
	USBaren ainguratzea aktibo dago
	WiFi eramangarriaren eremua aktibo dago
	USBaren ainguratzea eta WiFi eramangarriaren eremua aktibo daude

Ainguratzeari eta WiFi eramangarrien eremuei buruzko informaziorik berriena eskuratzeko, sistema eragile bateragarriak eta bestelako datuak barne, joan webgune honetara: <http://www.android.com/tether>.

OHARRA: linean konektatzeak eta zerbitzuak erabiltzeak gastu gehigarriak sor ditzake. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

USBaren ainguratzea eta WiFi eramangarriaren eremua konfiguratzea

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes**.
- 2 Ukitu **Conexiones inalámbricas** eta hautatu **Anclaje a red y zona Wi-Fi**.

3 Hautatu doitu nahi dituzun aukerak.

Módem USB: aktibatu aukera hori telefonoaren sare mugikorreko datu-konexioa ordenagailuarekin partekatzeko, USB-konexio baten bidez.

Mi zona WiFi: aktibatu aukera hori telefonoaren sareko datuen konexioa WiFi-aren bidez partekatzeko.

Ayuda: USBaren ainguratzeari eta WiFi eramangarrien eremuei buruzko elkarrizketa-koadro bat irekitzen du. Xehetasun gehiago eskuratzeko tokiei buruzko informazioa ere ematen du.

Telefonoaren sareko datu-konexioa USB bidez partekatzea:

Zure ordenagailuak Windows 7 sistema eragilea edo Linux-en bertsio berrienetako bat (Ubuntu, adibidez) badu, teoriarik ez duzu ordenagailua ainguratzerako prestatu behar. Windowsen edo beste sistema eragile baten bertsio zaharrago bat baduzu, ordea, litekeena da ordenagailua prestatu behar izatea, USBaren bidez sare-konexio bat ezartzeko. USBaren ainguratzea onartzen duten sistema eragileei eta horiek konfiguratzeko moduari buruzko informazio eguneratuagoa eskuratzeko, joan helbide honetara: <http://www.android.com/tether>.

Wi-Fi-a


USBa ainguratzea eta datuak trukitzea

Ezin dituzu batera partekatu telefonoaren sareko datu-konexioa eta microSD txartela, USB bidez. USB konexioa erabiltzen baduzu microSD txartela ordenagailurako eskura egon dadin, hura deskonektatu egin behar duzu lehendabizi.

- 1 Erabili telefonoarekin batera datorren USB datu-kablea telefonoa ordenagailura konektatzeko.
- 2 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes**.

3 Ukitu **Conexiones inalámbricas** eta hautatu **Anclaje a red y zona Wi-Fi**.

4 Aktibatu **Módem USB** aukera.

- Telefonoa sare mugikorreko datu-konexioa ordenagailuarekin partekatzen hasiko da, USB-konexio baten bidez. Irteera-jakinazpen bat  agertuko da egoera-barran eta jakinarazpenen ontzian.

5 Desaktibatu **Módem USB** aukera, datu-konexioaren trukea eteteko. Edo, bestela, kendu USB kablea.

Telefonoaren sareko datuen konexioa WiFi eramangarriko eremu gisa partekatzeko:

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes**.
- 2 Ukitu **Conexiones inalámbricas** eta hautatu **Módem USB** eta **Mi zona Wi-Fi**.
- 3 Aktibatu **Mi zona Wi-Fi** aukera.
 - Une bat itxaron ondoren, telefonoa haren WiFi (SSID) sare-izena hedatzen hasiko da, eta gehienez zortzi ordenagailu edo bestelako gailu konekta ditzakezu. Irteera-jakinarazpen bat  agertuko da egoera-barran eta jakinarazpenen ontzian.

- **Mi zona Wi-Fi** aukera aktibatuta dagoenean, sarearen izena alda dezakezu edo sarea babestu.
- 4 Kendu marka **Mi zona Wi-Fi** aukerari, WiFi bidez datuak partekatzea eteteko.

WiFi eramangarriaren eremuaren izena aldatzeko edo babesteko:

Telefonoaren WiFi (SSID) sarearen izena aldatu eta zure WiFi sarea babestu dezakezu.

Wi-Fi-a

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes**.
- 2 Ukitu **Conexiones inalámbricas** eta hautatu **Módem USB** eta **Mi zona Wi-Fi**.
- 3 Egiartzatu **Mi zona Wi-Fi** aukera aktibatuta dagoela.
- 4 Ukitu **Ajustes Mi zona Wi-Fi** atalean.
- 5 Ukitu **Configurar zona Wi-Fi**.
 - **Configurar zona WiFi** elkarrizketa-koadroa irekitzen da.
 - Beste ordenagailu batzuk, WiFi sareak arakatzean, ikusiko duten sarearen izena alda dezakezu (SSID).
 - Halaber, **Seguridad** menua ukitu dezakezu, sarearen segurtasuna WiFi2-ko sarbide babestuekin (WPA2) eta aurretik partekatutako gako batekin (PSK) konfiguratzeko.
 - **WPA2 PSK** segurtasun-aukera ukitzen baduzu, pasahitz-eremua gehituko zaio **Configurar zona WiFi** elkarrizketa-koadroari. Pasahitz bat sartzeko, ordenagailu bidez edo beste gailuren baten bidez konektatu behar duzu telefonoaren WiFi eramangarriaren eremura. Bestela, ukitu **Seguridad** menuko **Abrir**, WiFi sareari segurtasuna kentzeko.

KONTUZ:

segurtasun-aukera bat Abierta gisa ezartzen baduzu, ezingo duzu beste erabiltzaileek zure lineako zerbitzuak erabiltzea saihestu, eta baliteke kargu gehigarriak aplikatzea. Baimenik gabe erabiltzea saihesteko, gomendatzen da segurtasun-aukera aktibatuta izatea.

6 Ukitu **Guardar**.

WiFi Direct aktibatzea SmartShare bidez partekatzeko

WiFi Direct ezin da aktibatu beste WiFi funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean. WiFi Direct-ek automatikoki bilatzen ditu inguruan dauden beste WiFi Direct gailu batzuk, eta aurkitutako gailuen zerrenda sortzen du heldu ahala ordenatuta. Multimedia-datuak partekatzeko gailu espezifiko bat hautatu ahal izango duzu SmartShare bidez.

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes**.

Wi-Fi-a

- 2 Ukitu **Conexiones inalámbricas** eta hautatu Configuración de **WiFi Direct**.
- 3 Egiaztatu **WiFi Direct** hautatuta dagoela.
- 4 Aurkitutako gailuen zerrendatik, hautatu konektatu nahi duzun gailua.

Propietario de Grupo Forzado modua:

ukitu hori, taldearen jabearen modua aktibatzeko. Horrek telefonoan bilaketa egiten du eta konektatzeko modukoak diren oinordetzako WiFi gailuak aktibatzen ditu.

Kasu horretan, aurretik ezarritako pasahitza sartu behar duzu hemen: **Menu > Avanzado > Contraseña**.

OHARRA: telefonoa taldearen jabe bihurtzen denean, bezero denean baino bateria gehiago kontsumituko du. WiFi Direct konexioak ez du Internet zerbitzurik ematen. Linean konektatzeak eta zerbitzuak erabiltzeak gastu gehigarriak sor ditzake. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

WiFi Cast erabiltzea

Android telefonoak erabiltzen dituztenen artean musika, irudiak eta bideoak partekatu ditzakezu, WiFi sare beraren eta WiFi Directed-en bidez.

Egiaztatu aurretiaz zure WiFi sarea eta WiFi Directed, eta egiaztatu erabiltzaile guztiak sare berera konektatuta daudela.

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Ajustes**.
- 2 Ukitu **Conexiones inalámbricas** eta hautatu **Configuración de WiFi Direct**.

3 Ziurtatu **WiFi Direct** hautatua dagoela, eta aukeratu aurkitutako gailuen zerrendatik konektatu nahi duzuen.

4 Ukitu **Conectar**.

OHARRA:

WiFi Cast aktibatuta dute erabiltzaileek. Egiaztatu erabiltzaileak WiFi sare berera daudela konektatuta.

On-Screen Phone

On-Screen Phone erabiltzea

On-Screen Phone-rekin, telefono mugikorraren pantaila ikus dezakezu ordenagailuan, USB konexioaren nahiz Bluetooth-aren bidez. Ordenagailutik ere kontrola dezakezu telefono mugikorra, saguarekin edo teklatuarekin.

On-Screen Phone-ren ikonoak



Telefono mugikorra ordenagailu batera konektatzeko edo deskonektatzeko.



On-Screen Phone-ren leihoa biratzeko (funtzio hori onartzen duten aplikazioetan bakarrik dago eskuragarri).



On-Screen Phone-ren lehentasunak aldatzeko.



On-Screen Phone programatik ateratzeko.



On-Screen Phone-ren leihoa txikitzeko.

On-Screen Phone-ren funtzioak

- Transferentzia eta kontrola denbora errealean: telefono mugikorraren pantaila bistartzeko eta kontrolatzeko, gailua ordenagailura konektatzean.

- Sagu bidez kontrolatzea: telefono mugikorra sagu bidez kontrola dezakezu elementu jakinetan klik egiteko eta ordenagailuko pantailara eramateko.
- Testua teklatuarekin sartzea testu-mezu bat edo ohar bat idatz dezakezu ordenagailuko teklatuarekin.
- Fitxategien transferentzia (telefono mugikorretik ordenagailura): fitxategiak telefono mugikorretik ordenagailura bidaltzeko aukera ematen du (adibidez, argazkiak, bideoak, musika eta Polaris Office-ko fitxategiak). Nahikoa da nahi den fitxategian eskuineko botoiarekin klik egin eta arrastatzea, ordenagailura bidaltzeko.
- Fitxategien transferentzia (ordenagailutik telefono mugikorrera): fitxategiak ordenagailutik telefono mugikorrera bidaltzeko. Nahikoa da transferitu nahi dituzun fitxategiak hautatzea, arrastatzea eta On-Screen Phone-ren leihoan askatzea. Bidaltzen dituen fitxategiak microSD txartel batean gordetzen dira.
- Ekitaldiei buruzko jakinarazpenak denbora errealean: mezu bat bistaratuko da dei edo testu-mezuren bat jasotzen baduzu. Halaber, alarma eta ekitaldien jakinarazpenak ere bistaratuko dira.

On-Screen Phone

On-Screen Phone ordenagailuan instalatzea

LG PC Suite IV instalatzen baduzu, On-Screen Phone programa ere ordenagailura deskargatuko da. Ondoren, On-Screen Phone ordenagailuan instala dezakezu.

Telefono mugikorra ordenagailura konektatzea

USB konexioa:

- 1 Ireki konexio-laguntzailea, aukeratu USB bidezko konexioa egiteko aukera, eta sakatu **"Siguiente"**.

- 2 Konektatu telefono mugikorra ordenagailura USB kable batekin, eta sakatu **Siguiente**.
- 3 Sartu On-Screen Phone-ren pasahitza eta sakatu **Siguiente**. Aurrez definitutako kodea 0000 da. Pasahitza aldatzeko, jo hona: **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Configuración de On-Screen Phone**.

4 Sakatu **Aceptar** leihoa ixteko.

OHARRA: joan **Ajustes > Almacenamiento** atalera, eta egiaztatu **De almacenamiento masivo** kontrol-laukia hautatu gabe dagoela.

Haririk gabeko konexioa Bluetooth-ekin:

- 1 Telefono mugikorrean, joan hona: **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes de Bluetooth**. Hautatu **Activar Bluetooth** eta **Visible**.
- 2 Lehenago konexioa kable-bidez egin baduzu, exekutatu konexio berrirako laguntzailea, konexio berria sortzeko.
- 3 Exekutatu konexio-laguntzailea ordenagailuan, hautatu Bluetooth bidezko

konexio-aukera,eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.

- 4 Laguntzailea Bluetooth funtzioa duten telefono mugikorrak bilatzen hasiko da. Konektatu nahi duzun telefono mugikorra agertzen denean, sakatu **Detener** bilaketa geldiarazteko.


On-Screen Phone

- 5 Hautatu "LG-E510" gailuen zerrendan eta sakatu **Siguiente**. Gailuaren izena alda dezakezu, hala nahi baduzu.
- 6 Sartu PIN kodea ("0000" adibidez) eta sakatu **Siguiente**.
- 7 Telefono mugikorrean, onartu eskaera eta sartu PIN kode bera. Ondoren, sakatu **Aceptar**.
- 8 Sartu On-Screen Phone-ren pasahitza eta sakatu **Siguiente** (aurrez definitutako kodea 0000 da).
- 9 Ukitu **Aceptar** irteteko.

Telefonoa ordenagailura konektatuta dagoen egiaztatzea:

Gailu guztiak konektatu direnean, hasierako pantailako goiko aldean dagoen jakinarazpen-barra beherantz jaitsi, On-Screen Phone-ren konexio-egoera egiaztatzeko.

Telefonoa ordenagailutik deskonektatzea:





Egin klik  OnScreen Phone-ren leihoko goiko ezkerreko aldean. Halaber, beherantz arrastatu dezakezu hasierako pantailaren goiko aldean dagoen jakinarazpen-barra eta On-Screen Phone hautatu.

Ukitu **Sí** deskonexio-leihoan.

OHARRA: telefonoa berrabiarazi behar duzu On-Screen Phone zerbitzua itzali ondoren.


Deiak

Deitzea

- 1 Ukitu  teklatura irekitzeko.
- 2 Sartu zenbakia teklatura erabilia. Zenbaki bat ezabatzeko, ukitu  **ezabatze-** ikonoa.
- 3 Ukitu deiaren ikonoa  **deia** egiteko.
- 4 Dei bat amaitzeko, hautatu amaitzeko  ikonoa.


IRADOKIZUNA: Nazioarteko deiak egitean + ikurra sartzeko, luze sakatu .

Kontaktuei deitzea

- 1  Ukitu ikono hau kontaktu-zerrenda irekitzeko.
- 2 Mugitu zerrendan edo sartu deitu nahi duzun kontaktuaren lehen letrak **Buscar**-en bidez.
- 3 Zerrendan, ukitu deitu nahi duzun kontaktua.

Dei bati erantzutea edo ez onartzea

Telefonoak jotzen badu, arrastatu **erantzuteko**  ikonoa eskuinera.

Arrastatu deiari uko egiteko  ikonoa ezkerreko sarrerako dei bati uko egiteko. Arrastatu aitzakia-mezen barra behetik, aitzakia-mezu bat bidali nahi baduzu. Deitzen duen zenbakia ezezaguna bada, aitzakia-mezen barra ez da agertuko.

IRADOKIZUNA: Aitzakia-mezuak



Dei bati uko egiten diozunean, mezu bat bidal dezakezu berehala Enviar SMS funtzioa ukituta. Aukera hori erabilgarria da, bilera batean mezu bati erantzun behar badiozu.

Deiaren bolumena doitzea


Dei bat martxan dela deiaren bolumena doitzeko, erabili telefonoaren ezkerreko

aldean bolumena igotzeko eta jaisteko dagoen goranzko eta beheranzko botoia.

Bigarren deia egitea


- 1** Lehen deia egiten ari zarela, ukitu **teklatura** .
- 2** Markatu zenbakia edo bilatu kontaktua.
- 3** Ukitu **deiaren** ikonoa  deia egiteko.

Deiak

- 4 Bi deiak agertuko dira deiaren pantailan. Lehen deia blokeatu egingo da, eta zain jarri.
- 5 Ukitu bistaratzen den zenbakia, dei batetik bestera joateko. Edo ukitu **Llamada a tres** , konferentzia bat egiteko.
- 6 Aktibo dauden deiak amaitzeko, ukitu **Finalizar**. Dei guztiak batera amaitzeko, lerratu beheerantz jakinarazpenen ontziko barra, eta hautatu **Finalizar llamadas**.

OHARRA: egindako dei bakoitza kobratu egingo da.

Deien erregistroak ikustea

Hasierako pantailan, ukitu  eta hautatu **Registro de llamada** menua.

Bistaratu egindako dei guztien zerrenda (jasoak eta galduak).

IRADOKIZUNA: Ukitu dei-erregistroko edozein sarrera, horren data, ordua eta iraupena ikusteko.

IRADOKIZUNA: Ukitu **menu**-tekla, eta, ondoren, ukitu **Eliminar todo** gordetako elementu guztiak ezabatzeko.

Deien doikuntzak

Telefono-deien doikuntzak konfiguratu ditzakezu; esaterako, deiak desbideratzea edo zure hornitzaileak eskaintzen dituen beste funtzio berezi batzuk.


- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa aplikazioen menua irekitzeko.
- 2 Zoaz **Ajustes** atalera, eta ukitu aukera hori.
- 3 Ukitu **Ajustes de llamadas** eta hautatu doitu nahi dituzun aukerak.

Kontaktuak


Telefonoari kontaktuak gehitu, eta Googleko kontuko kontaktuekin edo kontaktuen sinkronizazioarekin bateragarriak diren bestelako kontuekin sinkroniza ditzakezu.

Kontaktu bat bilatzea

Hasierako pantailan:

- 1  Ukitu ikono hau kontaktu-zerrenda irekitzeko.
- 2 Ukitu **Buscar**, eta sartu kontaktuaren izena teklatuaren bidez.

Kontaktu berri bat gehitzea


- 1 Ukitu , idatzi kontaktu berriaren zenbakia, eta, ondoren, sakatu **menu**-tekla. Ukitu **Añadir a contactos** eta **Crear contacto nuevo**.
- 2 Kontaktu berriari irudi bat gehitu nahi badiozu, ukitu . Hautatu **Capturar 0** edo **Seleccionar de la galeria**.
- 3 Hautatu kontaktu-mota; horretarako, ukitu .
- 4 Ukitu kontaktuaren informazio-kategoria bat eta idatzi xehetasunak.

5 Ukitu **Guardar**.


Gogoko kontaktuak

Maiz deitzen dituzun kontaktuak gogoko gisa sailka ditzakezu.

Kontaktu bat gogoko gisa sailkatzea

- 1  Ukitu ikono hau kontaktu-zerrenda irekitzeko.
- 2 Ukitu kontaktu bat horren xehetasunak ikusteko.
- 3 Ukitu kontaktuaren izenaren eskuinean dagoen izarra. Izarra urre-kolorekoa izatera pasatuko da.

Gogokoen zerrendatik kontaktu bat ezabatzea

- 1  Ukitu ikono hau kontaktu-zerrenda irekitzeko.
- 2 Ukitu **Grupo** menua, eta hautatu Favoritos zerrendaren goiko zatian; ondoren, hautatu kontaktu bat horren xehetasunak ikusteko.
- 3 Ukitu kontaktuaren izenaren eskuinean dagoen izar horia. Izarra grisa izatera pasatuko da, eta kontaktua gogokoen zerrendatik kenduko da.

Kontaktuak

Eraman telefono zaharreko kontaktuak telefono berrira

Esportatu kontaktuak CSV fitxategi moduan telefono zaharretik ordenagailura, ordenagailuarekin sinkronizatzeko programa baten bidez.

- 1 Deskargatu PC Suite IV programa www.lg.com orrian, eta instalatu ordenagailuan. Exekutatu programa, eta konektatu Android telefono mugikorra ordenagailura, USB kablearen bidez.
- 2 Hautatu **kontaktu**en ikonoa. Joan hona: **Menú > Archivo > Importar**; eta

hautatu ordenagailuan gorde duzun CSV fitxategia.


- 3 Inportatutako CSV fitxategiaren eremuak eta PC Suite IVenak desberdinak badira, eremuak esleitu beharko dituzu. Eremuak esleitu ondoren, sakatu Aceptar. Kontaktuak PC Suite IVra gehituko dira.
- 4 PC Suite IVk LG-E510 telefonoaren konexioa detektatzen badu (USB kablearen bidez), sakatu Sincronizar edo Sincronizar contactos ordenagailuan gordetako kontaktuan telefonoan sinkronizatzeko.

Mezuak/Posta elektronikoa

Mezuak

LG-E510 telefonoaren bidez, SMS eta MMSak konbinatzen dira menu intuitibo eta erabilerraz batean.

Mezuak bidaltzea

- 1 Ukitu  ikonoa hasierako pantailan, eta ukitu **Nuevo mensaje** mezu zuri bat irekitzeko.
- 2 Sartu kontaktuaren izena edo telefono-zenbakia **Para** eremuan. Kontaktuari izena idatzi ahala, bat datozen kontaktuak agertuko dira. Iradokitako hartzaille bat ukitu dezakezu. Hainbat kontaktu gehitu daitezke.

OHARRA: testu-mezu batek zenbat hartzaille, hainbestetan kobratuko zaizu.

- 3 Ondoren, ukitu **Escribe el texto aquí**, mezua idazten hasteko.
- 4 Sakatu menu-tekla aukera-menua irekitzeko. Hauen artean aukeratu: **Llamar**, **Añadir asunto**, **Descartar**, **Adjuntar**, **Insertar emoticono** eta **Todos los mensajes**.
- 5 Ukitu **Enviar** mezua bidaltzeko.
- 6 Zure mezua duen mezu-pantaila irekiko da. Erantzunak pantailan agertuko dira. Mezu gehiago kontsultatu eta bidaltzen dituzun bitartean, mezu-katea sortuko da.

Mezuak/Posta elektronikoa



OHARRA: 160 karaktereko muga aldatu egin daiteke herrialde batetik bestera, SMSa kodifikatzeko erabiltzen den moduaren eta hizkuntzaren arabera.



OHARRA: SMS bati irudi-, bideo- edo soinu-fitxategi bat gehitzen badiozu, MMS bihurtzen da automatikoki, eta horri dagokion kostua kobratuko zaizu.

OHARRA: dei batean SMS bat jasotzen baduzu, jakinarazpen-tonu bat entzungo duzu.

Izenaren arabera antolatzea

Beste pertsona bati bidalitako edo harengandik jasotako mezuak (SMSak eta MMSak) ordena kronologikoan bistaratu daitezke, hizketaldiaren ordena logikoari eusteko.

Aurpegierak erabiltzea

Alaitu zure mezuak, aurpegierak erabiliz.

Mezu berri bat idaztean, sakatu **menu**-tekla, eta hautatu **Insertar emoticono**.

Mezuen doikuntzak aldatzea

LG-E510 terminalaren mezuen doikuntzak aurrez ezarrita daude; beraz, hasiera-hasieratik bidal daitezke mezuak.

Doikuntzak zure lehentasunen arabera alda ditzakezu.



OHARRA: modu horretan, MMS gailu bezeroak erabiltzailea gidatuko du Core MM Content Domain-en edukiarekin soilik sortzeko eta bidaltzeko mezuak. Erabiltzailea gidatzeko, lau ohar-elkarrizketa agertuko dira.

Mezuak/Posta elektronikoa

Posta elektronikoa eta Cuentas pantaila irekitzea

Correo electrónico aplikazioa erabil dezakezu Google mail-ekoa ez den posta elektronikoa bat erabiltzeko. Correo electrónico aplikazioak kontu-mota hauek onartzen ditu: POP3, IMAP eta Exchange.

Correo electrónico aplikazioa irekitzeko

Hasierako pantailan, ukitu **Correo electrónico**.

Hautatu posta elektronikoko hornitzailea.

Konfigurazio-laguntzaile batek posta

elektronikoko kontu bat gehitzen lagunduko dizu. Hasierako konfigurazioa egin ondoren, Correo electrónico aplikazioak Recibidos karpeta(kontu bakarra baduzu) edo Cuentas pantailako (kontu bat baino gehiago badituzu) edukiak erakutsiko dizkizu.

Cuentas pantaila

Jasotako mezuen eta posta elektronikoko kontuen arteko konbinazioak banan-banan aipatzen ditu **Cuentas** pantailak.

- 1 Ireki Correo electrónico aplikazioa. Ez baduzu aurkitzen Cuentas pantailan, sakatu menu-tekla, eta ukitu Cuentas.
- 2 Hautatu posta elektronikoko hornitzailea.



- Ukitu ikono hori Combinación de recibidos irekitzeko (zure kontu guztietan jasotako mezuak agertzen dira).



- Ukitu ikono hori zerrenda bat edo nabarmendutako zure mezuak irekitzeko.



- Ukitu karpeta ikonoa kontuko karpetak irekitzeko. Kontu bat uki dezakezu sarrerako ontzia ikusteko.

Mezu elektronikoa zein kontutatik bidaliko den hautatzeko, egiaztapen-marka bat agertuko da lehenespenez.

Combinación de recibidos irekitzeko

Correo electrónico aplikazioa kontu bat baino gehiagoko mezuak jasotzeko eta bidaltzeko konfiguratu baduzu, kontu guztietara bidalitako mezu guztiak ikusi ahal izango dituzu **Combinación de recibidos** karpetan.

Mezuak/Posta elektronikoa

- 1 Ukitu **Correo electrónico**.
- 2 Ukitu **Combinación de recibidos** (Cuentas pantailan). Combinación de recibidos karpetako mezuak koloreen arabera kodetuta daude ezkerrean, kontuen arabera, Cuentas pantailako kontuekin erabiltzen diren kolore berdinekin.

Kontuko azken mezu elektronikoak soilik deskargatzen dira telefonora. Mezu elektroniko gehiago deskargatzeko (zaharragoak), ukitu **Cargar más mensajes** posta elektronikoko zerrendaren beheko aldean.

Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea

Mezu bat idazteko eta bidaltzeko


- 1 **Correo electrónico** aplikazioan, sakatu **menu**-tekla, eta ukitu **Redactar**.
- 2 Idatzi mezuaren hartzailearen helbidea. Testua idatzi ahala, testu horrekin bat datozen helbideak (kontaktuen zerrendakoak) eskainiko zaizkizu. Bereizi helbideak koma erabiliz.

3 Sakatu **menu**-tekla, eta ukitu **Añadir Cc/CCO** mezuaren kopia bat edo ezkutuko kopia bat bidaltzeko beste kontaktu edo helbide elektronikoko batzuei.

4 Sartu mezuaren testua.

5 Ukitu **menu**-tekla, eta ukitu **Adjuntar** mezarekin batera argazki bat bidaltzeko.

6 Ukitu **Enviar** botoia.

Ez bazaude prest mezua bidaltzeko, ukitu Guardar botoia eta mezua Borradores karpetan gordeko da. Ukitu Borradores karpetako zirriborro bat, mezua idazten jarraitzeko. Mezua zirriborro moduan gordeko da, baita ere, bidali aurretik **atzera** tekla  ukitzen baduzu. Ukitu **Descartar** botoia mezu bat utzi

eta ezabatzeko (zirriborroak barne).

Ez bazaude sare batera konektatuta (adibidez, hegazkin-moduan bazaude), bidaltzen dituzun mezua Bandeja de salida karpetan gordeko dira berriro ere sarera konektatuta egon arte. Bidaltzeko zain dagoen mezuren bat baduzu, Bandeja de salida karpeta agertuko da Cuentas pantailan.

Mezuak/Posta elektronikoa

Kontuan izan Exchange kontu baten bidez bidalitako mezuak ez direla telefonoan egongo; Exchange zerbitzarian egongo dira. Bidalitako mezuak Enviados karpeta (edo Enviados etiketarekin) ikusi nahi badituzu, zenbaitetan Enviados etiketa edo karpeta ireki, eta Actualizar aukeratu beharko duzu aukera-menuan.

IRADOKIZUNA: sarrerako ontzira mezu elektronikoa berri bat iristen denean, jakinarazpen bat jasoko duzu, soinu edo bibrazio bidez. Geldiarazteko, ukitu posta elektronikoko jakinarazpena.

Kontuko karpetekin lan egitea

Kontu bakoitzak karpeta hauek ditu: **Entrada**, **Bandeja de salida**, **Enviado** eta **Borrador**. Kontuaren zerbitzu-hornitzaileak onartzen dituen funtzioen arabera, karpeta gehiago izango dituzu.

Posta elektronikoko kontuak gehitzea eta editatzea

Posta elektronikoko kontu bat gehitzeko.

- 1 Ukitu **menu**-tekla, eta ukitu **Añadir cuenta**.
- 2 Hautatu MS Exchange edo Otros, eta sartu kontuaren konfigurazioa.
- 3 Sartu kontuarentzako izen bat, aukeratu nola nahi duzun agertzea zure izena irteerako mezuetan, eta ukitu **Listo** botoia.

Kontu bateko doikuntzak aldatzeko

- 1 Joan **Cuentas** pantailara.
- 2 Luze sakatu kontua, doikuntzak aldatzeko. Irekiko den menuan, ukitu **Ajustes de la cuenta**.

Posta elektronikoko kontu bat ezabatzeko

- 1 Joan **Cuentas** pantailara.
- 2 Luze sakatu ezabatu nahi duzun kontua.

Mezuak/Posta elektronikoa

- 3 Irekiko den menuan, ukitu **Eliminar cuenta**.
- 4 Ukitu elkarrizketa-koadroko **Aceptar** botoia, kontua ezabatu nahi duzula baieztatzeko.

Sare sozialak

Zure telefono berriarekin, sare sozialak erabili edo zure mikrobloga administra dezakezu, lineako komunitateetan. Zure eguneko egoera eguneratu dezakezu, argazkiak kargatu ditzakezu eta zure lagunen egoera-eguneraketak ikus ditzakezu denbora errealean.

Facebook eta Twitter-eko zure kontuak gehitu ditzakezu telefonora. Horietako konturik ez badaukazu, zure webguneak bisitatzeko eta sortzeko aukera duzu.

OHARRA: linean konektatzeak eta zerbitzuak erabiltzeak gastu gehigarriak sor ditzake. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

Zure kontua gehitzea telefonoari

- 1 Hasierako pantailan, hautatu erabili nahi duzun SNS aplikazio bat.

- 2 Oraindik ez baduzu konturik, ukitu **Registrar**, eta sartu datuak.
- 3 Sartu sare sozialean konfiguratu dituzun helbide elektronikoa eta pasahitza, eta ukitu **Iniciar sesión**.
- 4 Itxaron xehetasunak sare sozialeko datuekin alderatzen diren bitartean.
- 5 Egiaztatu sare soziala **aktibatuta** dagoela. Zure sare soziala ukitzen baduzu, zure sare sozialaren egoera ikusiko duzu.

IRADOKIZUNA: sare sozialen widget bat gehitzen baduzu bat gehitzen baduzu zure hasierako orrira, widget-ak zure egoera erakutsiko du telefonoak saretik datuak eguneratzen dituenean. Widget-a ukituta, zuzenean sar zaitezke komunitate sozialera.

Zure egoera ikustea eta eguneratzea

- 1 Hautatu zer sare sozialetara sartu nahi duzun.
- 2 Zure sare sozialaren uneko egoera ikus dezakezu.

Mezuak/Posta elektronikoa

3 Egoera eguneratu dezakezu iruzkin eta argazkiekin.

OHARRA: sare-zerbitzuen araberakoa da.

IRADOKIZUNA: lagunei buruzko informazioa SNSn soilik erabil dezakezu, edo datu guztiak Contactos karpetaarekin sinkroniza ditzakezu.

Telefonotik kontuak ezabatzea

Hautatu **Ajustes > Cuentas y sincronización > ezabatu** nahi duzun kontua, eta ukitu **Eliminar cuenta**.

Kamera

Bisorea ezagutzea




IRADOKIZUNA: Bisorearen pantaila argiagoa izateko, itxi sarbide azkarreko aukera guztiak. Ukitu behin bisorearen erdian. Aukerak bistartzeko, ukitu pantaila berriro.

- 1 Zooma:** irudia zabaltzeko edo txikitzeko balio du. Bestela, alboko bolumen-teklak erabil daitezke.
- 2 Distira:** irudira sartzen den eguzki-argiaren kantitatea definitzen eta kontrolatzen du. Lerratu distira-adierazlea barran: Mugitu “-”dagoen aldera irudiaren distira gutxitzeko, eta “+” dagoen aldera handitzeko.
- 3 Eszena-modua:** hautatu bat: **Automática, Retrato, Paisaje, Deportes, Noche** eta **Atardecer**.
- 4 Tamaño de imagen:** ukitu aukera hau aterako den argazkiaren tamaina (píxeletan) konfiguratzeko.
- 5 Doikuntzak:** ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus “Konfigurazio aurreratua erabiltzea”.
- 6 Bideo-modua:** lerratu ikonoa bideo-modura aldatzeko.
- 7 Argazki bat ateratzea**
- 8 Galeria:** ukitu aukera hau atera duzun azken argazkia ikusteko. Zure galerian sartu eta gordetako argazkiak kamera modutik ikusteko aukera ematen du.

Kamera

Argazkiak azkar ateratzea

- 1 Ireki **Cámara** aplikazioa.
- 2 Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea argazkia atera nahi diozun horri begira.
- 3 Bisorearen pantailaren erdian, fokatzeko koadro bat keinuka hasiko da, objektua fokuratzeko.
- 4 Fokuratze-koadroa berde jartzen da objektua fokuratu ondoren.
- 5 Sakatu argazkia ateratzeko botoia. Argazkia ateratzeko botoia saka dezakezu fokuratze-koadroa berde egon gabe ere.
- 6 Sakatu argazkia ateratzeko botoia .

Argazkia atera ondoren

Ateratako argazkia pantailan agertzen da.

Enviar por

Ukitu aukera hau argazkia partekatzeko **SmartShare, Bluetooth, E-mail, Gmail, Mensajes, Picasa, Social+ edo Wi-Fi Cast** erabiliz.

OHARRA: mugikortasunean MMSak deskargatuz gero, kargu gehigarriak ezar daitezke.

IRADOKIZUNA: SNS kontu bat badaukazu eta telefonoan konfiguratuta badago, SNS komunitatearekin parteka dezakezu argazkia.

Establecer como

Ukitu aukera hau irudia kontaktu baten ikono moduan edo **atzeko plano** moduan erabiltzeko.

Renom.

Ukitu ikono hau atera berri duzun irudiaren izena editatzeko.



Ukitu ikono hau irudia ezabatzeko.



Ukitu ikono hau berehala beste argazki bat ateratzeko. Uneko argazkia gorde egiten da.



Ukitu ikono hau gordetako argazkien galeria ikusteko.

Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu  konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko.

Aldatu kameraren doikuntzak, zerrendan mugituz. Nahi duzun aukera hautatu ondoren, sakatu **Atrás** tekla.

Kamera

ISO: ISO balioak kameraren argi-sentsorearen sentikortasuna adierazten du. ISO balioa zenbat eta handiagoa izan, kamera orduan eta sentikorra izango da. Oso erabilgarria da flasha erabili ezin den ingurune ilunetan.

Hautatu ISO balioa: **Auto.**, **400**, **200** edo **100**.

Bal. de blancos: hautatu **Auto**, **Incandescente**, **Soleado**, **Fluorescente** edo **Nublado**.

Efecto de color: hautatu kolore-tonu bat, argazki berriari jartzeko.

Temporizador: argazkia ateratzeko botoia sakatu ondoren aplikatzen den atzerapena konfiguratzeko. Hautatu **Apagado**, **3 seg.**, **5 seg.** edo **10 seg.** Oso eroso da norbera ere argazkian agertzeko.


Calidad de imagen: hautatu **Súper fina**, **Fina** edo **Normal**. Kalitatea zenbat eta handiagoa izan, argazkia orduan eta garbiagoa izango da. Hala ere, fitxategiaren neurria ere proportzioan handitzen da, eta, beraz, memorian argazki gutxiago gorde daitezke.


Revisión automática: Activado funtzioa aktibatuz gero, automatikoki agertuko da atera berri duzun argazkia.

Sonido obturador: hautatu obturadorerako lau soinuetako bat.

Ubicación etiqueta: kokapenean oinarritutako telefono-zerbitzuak erabiltzeko balio du. Atera argazkiak edozein lekutan, eta jarri lekuaren etiketa. Argazkiak etiketa geografikoekin bateragarria den blog batera igotzen badituzu, mapan ikusiko dituzu irudi horiek.

OHARRA: GPSa aktibatuta dagoela soilik dago eskuragarri funtzio hori.

: aurrez ezarritako kameraren doikuntza guztiak berrezartzeko.


: ukitu aukera hau funtzio hau nola erabili jakin nahi baduzu. Hala, gida azkar batera sartuko zara.

IRADOKIZUNA: kameratik irtetea, doikuntza batzuk lehenespenezko balioetara itzuliko dira, hala nola zuriaren balantzea, kolore-tonua, tenporizadorea eta eszena-modua. Egiaztatu hurrengo argazkia atera aurretik.

Kamera

IRADOKIZUNA: Doikuntzen menua bisorearen gainean bistaratuko da; horrela, kolore-doikuntzak edo irudiaren kalitatea aldatzean, aldaketak ikusi ahal izango dituzu aurrebista-moduan, doikuntza-menuaren atzean.

Gordetako argazkiak ikustea

Sartu **Cámara** moduan gordetako zure argazkietara. Horretarako,  ukitu behar duzu, eta, gero, pantaila. Segidan, **Presentación** eta **Menú** ikusiko dituzu.

IRADOKIZUNA: mugitu ezkerrera edo eskuinera, beste argazki edo bideo batzuk ikusteko.



: ukitu aukera hau aurkezpen bat ikusteko.



: ukitu aukera hau edukia partekatzeko edo argazki bat ezabatzeko. Ukitu **Más** aukera osagarriak ikusteko.

Detalles: edukiari buruzko informazioa kontsultatzeko.

Establecer como: irudi bat kontaktu baten ikono moduan edo atzeko plano moduan ezartzeko.

Recortar: argazia mozteko. Mugitu behatza pantailan, eremua hautatzeko.

Girar: ezkerrera edo eskuinera biratzeko.




Bideokamera

Bisorea ezagutzea



- 1 Zooma:** irudia zabaltzeko edo txikitzeko balio du. Bestela, alboko bolumen-teklak erabil daitezke.
- 2 Distira:** bideora sartzen den eguzki-argiaren kantitatea definitzen eta kontrolatzen du. Lerratu distira-adierazlea barran, "-" aldera bideoaren distira murrizteko, eta "+" aldera handitzeko.
- 3 Bideoaren tamaina:** ukitu grabatuko duzun bideoaren tamaina (pixeletan) konfiguratzeko.
- 4 Iraupena:** bideoen iraupen-muga konfiguratzeko. Hautatu Normal edo MMS, MMS mezuetarako bideoen gehieneko tamaina mugatzeko.
- 5 Doikuntzak:** ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus "Konfigurazio aurreratua erabiltzea".
- 6 Kamera-modua:** mugitu ikonoa gorantz kameraren modura aldatzeko.
- 7 Grabatzen hasteko**
- 8 Galeria:** ukitu aukera hau grabatu den azken bideoa ikusteko. Galerian sartu eta bideo-moduan gordetako bideoak ikusteko.

Bideo bat azkar egitea

- 1 Lerratu **kamera**-moduko botoia beherantz, eta  ikonoa agertuko da.
- 2 Bideokameraren bisorea agertuko da pantailan.
- 3 Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea grabatu nahi duzun horri begira.
- 4 Grabazioari ekiteko, sakatu behin grabatzeko botoia .
- 5 REC agertuko da bisorearen beheko aldean, tenporizadore batekin. Han, bideoaren iraupena agertuko da.
- 6 Ukitu  pantailan, grabatzen amaitzeko.

Bideo bat grabatu ondoren

Irudi finko bat agertuko da pantailan, grabatutako bideoarena.

Abrir

Ukitu ikono hau, bideoa erreproduzitzeko.

Enviar por

Ukitu ikono hau zure bideoa **SmartShare, Bluetooth, posta elektronikoa, Gmail, Mezu, W-Fi Cast** edo **YouTube** bidez partekatzeko.

Bideokamera

OHARRA: mugikortasunean MMSak deskargatuz gero, kargu gehigarriak ezar daitezke.

Renom.

Ukitu hau hautatutako bideoaren izena editatzeko.



Ukitu hau berehala beste bideo bat grabatzeko. Uneko bideoa gorde egiten da.




Ukitu hau grabatu berri duzun bideoa ezabatzeko. Berresteko, sakatu Sí. Berriro bisorea agertuko da.



Ukitu ikono hau, gordetako bideoen galeria ikusteko.

Konfigurazio aurreratua erabiltzea



Bisorean, ukitu , aukera aurreratu guztiak irekitzeko. Bideokameraren doikuntzak alda ditzakezu zerrendan batetik bestera joanda. Nahi duzun aukera hautatu ondoren, sakatu Atrás tekla.

Bal. de blancos: bideoetan agertzen diren eremu zuriak errealistak izatea bermatzen du zurien balantzeak. Kamerak zurien balantzea behar bezala doitu dezan, argitasuna definitu beharko duzu. Hautatu **Auto, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado**.


Efectos de color: hautatu kolore-tonu bat, ikuspegi berriari jartzeko.

Calidad de vídeo: hautatu **Súper fina**, **Fina** edo **Normal**.

Voz: hautatu Silenciar, bideo bat soinurik gabe grabatzeko.


Revisión automática: berrikuspen automatikoak automatikoki bistaratzen du grabatu berri den bideoa.

: bideokameraren lehenespenezko doikuntza guztiak berrezartzeko.

 Ukitu aukera hau funtzio hau nola erabiltzen den jakin nahi baduzu. Hala, gida

azkar batera sartuko zara.

Gordetako bideoak ikustea

- 1 Bisorean, ukitu .
- 2 Zure galeria agertuko da pantailan.
- 3 Ukitu behin bideoa galeriaren lehen planora ekartzeko. Automatikoki erreproduzitzen hasiko da.

Bideokamera

Bolumena doitzea bideo bat ikustean

Bideo bat erreproduzitzen ari dela bolumena doitzeko, ukitu telefonoaren ezker aldeko bolumen-teklak.

Multimedia

Multimedia-fitxategiak memoria-txartel batean gorde ditzakezu, zure irudi- eta bideo-fitxategi guztietara erraz sartzeko.

Ukitu **Aplicaciones** menua, eta, gero, hautatu **Galería**. Ireki katalogo-barren zerrenda bat multimedia-fitxategi guztiak biltegitatzeko.


OHARRA: argazkiak gordetzeko eta haietara sartzeko, egiaztatu memoria-txartel bat sartu duzula telefonoan. Memoria-txartelik gabe, telefonoak ez du argazkirik edo bideorik bistaratuko, ez eta Picasaren albumean dagoen irudirik ere.

Modo de visualización

Ukitu **Galería**. Karpeten ikuspegia agertuko da.

Ukitu edozein karpeta eta lauki-ikuspegira aldatuko da. Argazki bat ukituta, irudia osorik ikusten da.

Ikuspegi kronologikoa

LG-E510en **galeriak** zure argazki eta bideoen ikuspegi kronologikoa du. Lauki-ikuspegiaren, arrastatu  eskuinera, eta argazkiak atara ziren data agertuko da, berrietik hasita. Data jakin bat hautatuz gero, egun horretan egindako argazki guztiak multzokatzen dira.

Multimedia

SmartShare erabiltzea

Aktibatutako beste DLNA (Digital Living Network Alliance) gailu batzuekin multimedia-edukiak erabiltzeko modurik onena eskaintzen dizu SmartSharek.

* **Partekatu zure multimedia-fitxategiak beste DLNA (DMS) gailu batzuekin**

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **SmartShare**.
- 2 Sakatu **menu**-tekla, eta hautatu **Ajustes**.
- 3 Ukitu egiaztatze-laukitxo, aktibatzeko.

4 Zure gailuaren izena eta ikonoa alda ditzakezu, eta partekatzeko eduki-motak hautatu.

* **Erreproduzitu itzazu zure prozesadorean (TBan, adibidez) urruneko eduki-liburutegiko multimedia-edukiak (PC batekoak, adibidez).**

1 Ukitu goiko eskuineko botoia, prozesadoreen zerrendatik gailua hautatzeko.

- 2 Ukitu goiko ezkerreko botoia, eta hautatu urruneko eduki-liburutegi bat.
- 3 Urruneko eduki-liburutegian nabiga dezakezu.
- 4 Ukitu eduki-miniatura bat edo sakatu menu-tekla, eta hautatu Reproducir botoia.

Oharra: egiaztatu gailua zure etxeko sarera WiFi bidez konektatuta dagoela, aplikazio hori erabiltzeko.

Oharra: DLNArekin bateragarriak diren zenbait gailuk (telebistak, adibidez), DLNAren DMP funtzioa bakarrik onartzen dute, eta ez dira agertuko prozesadoreen zerrendan.





Musika

LG E510 gailuak musika-erreproduzitzaile integratua du, zure gustuko abesti guztiak entzun ditzazun. Musika-erreproduzitzailerara sartzeko, ukitu **Música**.

Abesti bat erreproduzitzea

- 1 Hasierako pantailan, ukitu Aplicaciones menua, eta hautatu **Música**.
- 2 Ukitu **Canciones**.

Multimedia

- 3 Hautatu erreproduzitu nahi duzun abestia.
- 4 Ukitu , abestia gelditzeko.
- 5 Ukitu , hurrengo abestira joateko.
- 6 Ukitu , abestiaren hasierara itzultzeko. Ukitu  bi aldiz aurreko abestira itzultzeko.

Musika entzuten ari zarela bolumena aldatzeko, sakatu gora edo behera bolumen-teklak (telefonoaren ezkerreko aldean daude).

Luze sakatu zerrendako edozein abesti.

Reproducir, Añadir a lista de reproducción,

Utilizar como tono del teléfono, Eliminar, Detalles, Compartir eta **Buscar** aukerak agertuko dira.

OHARRA: Baliteke musika-fitxategien copyrighta estatuko eta nazioarteko hitzarmen eta legeek babestuta egotea.

Beraz, litekeena da baimena edo lizentzia behar izatea musika erreproduzitzeko edo kopiatzeko. Herrialde batzuetan, estatuko legeen arabera, debekatuta dago copyrightaz babestutako materialak kopiatzea. Fitxategia deskargatu edo kopiatu aurretik, eskatu informazioa dagokion herrialdean horrelako materialari buruz dagoen legeriari buruz.

Fitxategiak transferitzea USB biltegitratze masiborako gailuen bidez

Fitxategiak USB gailuen bidez transferitzeko

- 1 Konektatu LG-E510 telefonoa ordenagailura USB kable batez bidez.
- 2 LGren Android plataformaren kontrolagailua ordenagailuan instalatu ez baduzu, doikuntzak eskuz aldatu beharko dituzu. Hautatu **Ajustes > Almacenamiento**, eta, gero, **Almacenamiento masivo**.

Multimedia

3 Ukitu **Activar almacenamiento USB**.

4 Orain, zure PCan ikus ditzakezu biltegitratze masiboko edukiak, eta fitxategiak transferitu ditzakezu.

OHARRA: aurretik SD txartel bat sartu behar duzu. SD txartelik gabe ezin da erabili biltegitratze masiboa.

OHARRA: LGren Android plataformaren kontrolagailua instalatu baduzu, “Activar almacenamiento USB” dioen mezu bat bistaratuko zaizu berehala.

Nola gorde telefonoan musika- edo bideo-fitxategiak

1 Konektatu zure telefonoa ordenagailura USB kablearen bidez. Hasierako pantailan, ukitu egoera-barra, eta arrastatu beherantz. Hautatu **Conectado por USB > Activar almacenamiento USB > Abrir carpeta para ver archivos**. LGren Android plataformaren kontrolagailua ordenagailuan instalatu ez baduzu, eskuz konfiguratu beharko duzu. Informazio gehiago behar baduzu, joan “Fitxategiak transferitzea biltegitratze masiborako gailuen bidez” atalera.

- 2 Gorde ordenagailuko musika- edo bideo-fitxategiak telefonoaren biltegitratze-sistema aldagarran.
- Txartel-irakurgailu baten bidez kopiatu edo mugi ditzakezu fitxategiak ordenagailutik telefonoaren biltegitratze-sistema aldagarrira.
 - Bideo-fitxategiarekin batera azpitu-tuluen fitxategi bat (bideoaren izen bera duen .srt fitxategia) badago, jar itzazu karpeta berean, bideo-fitxategia erreproduzitzean azpitu-tuluak automatikoki bistaratzeko.
 - Musika- edo bideo-fitxategiak deskargatzean, copyright-a bermatu

behar da. Kontuan izan hondatuta dagoen fitxategi batek edo luzapen okerra duen batek telefonoari kalte egin diezaiokeela.

Telefonotik datuak bidaltzea Bluetooth teknologia erabiliz

Datuak bidaltzea Bluetooth teknologia erabiliz. Bluetooth teknologia erabil dezakezu datuak bidaltzeko dagokion aplikazioa exekutatu, Bluetooth menuetik egin beharrean, ohiko telefono mugikorretan bezala.

Multimedia

- * **Irudiak bidaltzea:** exekutatu **Galería** aplikazioa, eta hautatu **Imagen > Menú**. Sakatu **Compartir**, eta, segidan, hautatu **Bluetooth**. Begiratu Bluetooth-a aktibatuta dagoen, eta hautatu **Buscar dispositivos**. Hautatu datuak bidali nahi dizkiozun gailua zerrendatik.
- * **Exportación de contactos:** exekutatu Contactos aplikazioa. Ukitu esportazioaren helburuko helbidea. Ukitu **menu**-tekla, eta hautatu **Compartir > Bluetooth**. Begiratu Bluetooth-a aktibatuta dagoen, eta hautatu **Buscar dispositivos**. Hautatu datuak bidali nahi dizkiozun gailua zerrendatik.
- * **Hautatutako zenbait kontakturi bidaltzea:** exekutatu Contactos aplikazioa. Kontaktatu bat baino gehiago hautatzeko, sakatu **menu**-tekla, eta ukitu **Compartir > Selección múltiple**. Hautatu zein kontakturi bidali nahi diezun, edo sakatu **menu**-tekla eta ukitu **Seleccionar todo > Compartir > Bluetooth**.

Begiratu Bluetooth-a aktibatuta dagoen, eta hautatu **Buscar dispositivos**. Hautatu datuak bidali nahi dizkiozun gailua zerrendatik.

* **FTPra konektatzea (FTP zerbitzaria gailu honetan soilik onartzen da):** hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes de Bluetooth**. Hautatu **Visible** laukitxo; hala, zure telefonoa bilatu ahal izango da beste gailu batzuetatik. Bilatu FTP zerbitzua eta konektatu FTP zerbitzarira.

- Telefono hau beste gailu batzuen bidez bilatu nahi baduzu, aukeratu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes de Bluetooth**. Hautatu **Visible** laukitxo. Laukitxo hori ezabatu egiten da 120 segundo igaro ondoren.

Irratia

LG-E510 telefonoak FM irrati integratua du, zure kate gogokoenak sintonizatu eta edozein lekutan entzun ditzazun.

OHARRA: irratia entzuteko, entzungailuak konektatu behar dituzu. Konektatu entzungailuen hartunean.

Multimedia

Irrati-kateak bilatzea

Telefonoan kateak sintoniza ditzakezu, eskuz edo automatikoki bilatuta. Ondoren, kate horiek kate-zenbaki jakinetan gordetzen dira, berriro bilatzen aritu beharrik ez izateko. 48 irrati-kanal ere gorde ditzakezu.

Sintonizazio automatikoa

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Radio FM**.
- 2 Ukitu **menu**-tekla, eta ukitu **Exploración auto**.
- 3 Lehenetsitako kanalak badaude, mezu

hau bistaratuko zaizu: “¿**Restablecer todos los canales e iniciar exploración automática?**”. **Aceptar** hautatzen baduzu, lehenetsitako kanal guztiak ezabatu egingo dira eta automatikoki arakatzen hasiko da.

- 4 Arakatze automatikoan, ukitu **Detener** arakatzea bertan behera utzi nahi baduzu. Arakatzea bertan behera utzi arte arakatu diren kanalak bakarrik gordeko dira.

OHARRA: irrati-kateak eskuz sintoniza ditzakezu, irudian ikus daitekeen gurgipila erabilita.

Kateak berrezartzea

Sakatu **menu**-tekla, eta hautatu **Reiniciar el canal** une horretako katea berrezartzeko, edo hautatu **Restablecer todos los canales**, kate guztiak berrezartzeko.

Irratia entzutea

Ukitu **Escuchar a través** bozgorailua edo entzungailua aukeratzeko, eta irratia entzungo duzu.

IRADOKIZUNA: seinalea hobeto hartzeko, luzatu entzungailuen kablea, irradi-antena baten modukoa baita.



OHARRA:

Telefonoarentzat espresuki egina ez den entzungailu bat konektatzen baduzu, baliteke irradi-seinalea kalitate txarrekoa izatea.

Tresnak

Alarma bat ezartzea

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Reloj**.
- 2 Alarma berri bat gehitu nahi baduzu, ukitu  eta hautatu **Añadir alarma**.
- 3 Definitu ordua, eta, ondoren, ukitu , alarma pizteko. Ordua definitu ondoren, alarmak jotzeko zenbat denbora falta den adieraziko dizu LG-E510ek.
- 4 Ezarri **Repetir**, **Tono** edo **Vibración**, eta, ondoren, gehitu etiketa bat alarmari izen bat emateko. Ukitu **Ejecutado**.

OHARRA: alarma-zerrenda duen pantailan alarmaren doikuntzak aldatzeko, sakatu **menu-tekla** eta hautatu **Ajustes**. Aukera hauek doitu ditzakezu: **Alarma en modo silencio**, **Volumen de alarma**, **Repetición de alarmas** eta **Comportamiento del botón lateral**.

OHARRA: Alarmak funtzionatuko du soilik telefonoa piztuta badago.

Kalkulagailua erabiltzea

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Calculadora**.

2 Ukitu zenbaki-teklak, zenbakiak sartzeko.

3 Kalkulu sinpleak egiteko, ukitu behar duzun funtzioa (+, -, x edo ÷), eta, ondoren, =.

4 Kalkulu konplexuagoak egiteko, sakatu **menu**-tekla, ukitu **funciones avanzadas** panela, eta hautatu hauetako bat: **sin**, **cos**, **tan**, **log** eta abar.

Egutegian gertaerak gehitzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Calendario**.

2 Ekintza hautatzeko, ukitu data. Luze sakatu, beste gertaera bat gehitu nahi baduzu. Ukitu **Evento nuevo** aukera.

3 Ukitu **Qué**, eta sartu gertaeraren izena.

Egiaztatu data, eta zehaztu zer ordutan nahi duzun gertaera hastea eta amaitzea.

4 Ukitu **Dónde**, kokapena sartzeko.

5 Gertaerari ohar bat gehitu nahi badiozu, ukitu **Descripción**, eta idatzi xehetasunak.

6 Alarma errepika dadin nahi baduzu, hautatu **Repetición**, eta ezarri gogorarazleak, beharrezkoa bada.

Tresnak

7 Sakatu **Listo**, gertaera egutegian gordetzeko. Egutegian, kolorezko laukitxo batez markatuta agertzen dira gertaerak dituzten egunak. Gertaera hastean, alarmak joko du, zure burua antolatua izaten laguntzeko.

Egutegiaren ikuspegia aldatzea

- 1** Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, eta hautatu **Calendario**. Sakatu **menu**-tekla.
- 2** Egutegiaren ikuspegia hautatu: egun bat, aste bat edo hilabete bat.

Polaris Viewer

Mobile Office-ren irtenbide profesional bat da Polaris Viewer. Tresna horren bidez, erabiltzaileek Office-ko dokumentu-mota ugari ikus ditzakete (Word, Excel eta PowerPoint dokumentuak, besteak beste) edozein unetan eta tokitan, gailu mugikorraren bidez.

Fitxategiak kudeatzea

Polaris Viewer-en bidez gailu mugikorren erabiltzaileek fitxategiak kudeatzeko funtzio praktikoak dituzte eskura, esaterako, fitxategiak kopiatzeko, ebakitzeko eta itsasteko funtzioak, bai eta gailutik fitxategiak eta karpetak ezabatzeko funtzioak ere.




Fitxategiak bistaratzea

Gailu mugikorren erabiltzaileek, orain, gailuan dokumentu-mota ugari bistartzeko aukera dute, hala nola Microsoft Office-ko dokumentuak eta Adobe PDF dokumentuak. Polaris Viewer-ekin dokumentuak ikustean, dokumentuko objektuak eta diseinuak jatorrizkoaren berdina dira.

Ahots-grabagailua

Erabili ahots-grabagailua, ahots- edo bestelako audio-fitxategiak grabatzeko.

Soinua edo ahotsa grabatzea

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Grabador de voz**.
- 2 Ukitu  grabazioa hasteko.
- 3 Ukitu  grabazioa amaitzeko.
- 4 Ukitu  grabazioa entzuteko.

OHARRA: Ukitu  albumera joateko. Gordetako grabazioa entzun ahal izango duzu.

Tresnak

Oharra: baliteke eskuragarri dagoen grabazio-ordua eta benetako ordua desberdinak izatea.

Ahots-grabazioa bidaltzea

- 1 Grabazioa amaitu ondoren, audio-klipa bidal dezakezu, **Compartir** ukituta.
- 2 Hautatu **Bluetooth, Correo electrónico, Gmail** edo **Mensajes. Correo electrónico, Gmail** edo **Mensajes** hautatzen baduzu, ahots-grabazioa mezuari gehituko zaio. Ondoren, mezua ohi bezala idatzi eta bidali behar duzu.

Sarea


Nabigatzailea


Nabigatzaileari esker, zure telefono mugikorretik joko, musikaz, berriz, kirolez, aisialdiz eta beste hainbat gauzaz betetako mundura sar zaitezke azkar-azkar. Edonon zaudela eta edozertan ari zarela ere.


OHARRA: kargu gehigarriak ezarriko dira zerbitzu horietara konektatu eta edukiak deskargatuz gero. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

Web tresna-barra erabiltzea

Ukitu , aurreko orrira itzultzeko.

Ukitu  uneko orriaren ondoren konektatu zaren orrira joateko. **Atzera** tekla sakatzean, kontrakoa gertatzen da, aurreko orrira bidaltzen baitzaitu.

Ukitu  irekita dauden leiho guztiak bistaratzeko.

Ukitu  leiho berri bat gehitzeko.

Ukitu  web-nabigatzailearen doikuntzak aldatzeko.

Sarea



Gehitu/bistaratu gogoko bat eta bistaratu aukera hauek: Más visitados, Leerlo después eta Historial.

Aukerak erabiltzea

Sakatu menu-tekla aukerak ikusteko:



Leerlo después: uneko webgunea gogokoetan sartzeko.



Añadir contenidos RSS: uneko webgunea RSS edukietara gehitzeko.



Compartir página: webgunea beste erabiltzaile batzuekin partekatzeko.



Buscar en la página: uneko orrian letra edo hitz gakoak bilatzeko.



Seleccionar texto: uneko orriko edozein testu kopiatzeko.



Gehiago

- **Página de inicio:** hasierako orrira itzultzeko.
- **Establecer como página de inicio:** uneko orria hasierako orri gisa erabiltzeko.
- **Añadir acceso directo a página principal:** hasierako pantailan uneko webgunerako zuzeneko sarbidea gehitzeko.

- **Información de la página:** web-orriari buruzko informazioa erakusten du.
- **Descargas:** deskargen historia ikusteko.

IRADOKIZUNA: aurreko orrira itzultzeko, sakatu **atzera** tekla.

Doikuntzak

Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** menua, joan **Ajustes** atalera, eta ukitu aukera hori.

Haririk gabeko konexioak

WiFi-aren eta Bluetooth-aren konexioak kudea ditzakezu hemen. Hegazkin-modua eta mugikorren sareak ere konfiguratu ditzakezu.

Modo avión: hegazkin-modua aktibatzen bada, haririk gabeko konexio guztiak desaktibatuko dira.

WiFi (ukitu aktibatzeko): eskura dauden WiFi sareei konektatzeko WiFi funtzioa aktibatzen du. 126

Configuración de WiFi: haririk gabeko sarbide-puntuak konfiguratzeko eta administratzeko. sarearen jakinarazpena finkatzeko edo WiFi sarea gehitzeko. WiFi-aren doikuntza aurreratuen pantailara joan daiteke WiFi-aren doikuntzen pantailatik. Ukitu **menu**-tekla eta **Avanzado**.

Configuración de Wi-Fi Direct: WiFi Direct gailuaren izena ezartzeko eta beste gailu batzuk bilatzeko. Edo talde baten jabe izan zaitezke, oinordetzako WiFi gailuak konektatu daitezke ahalbidetzeko.

IRADOKIZUNA: Nola lortu MAC helbidea

MAC iragazkia duen haririk gabeko sareekin konexioa konfiguratzeko, baliteke LG-E510aren MAC helbidea bideratzailean sartu behar izatea.

MAC helbidea erabiltzaile-interfaze honetan aurki dezakezu: ukitu

Aplicaciones > Ajustes > Conexiones inalámbricas > Configuración de WiFi, eta ukitu menu-tekla. Ondoren, hautatu **Avanzado > Dirección MAC**.

Bluetooth, ukitu aktibatzeko: Bluetooth konexioa aktibatzen du, beste Bluetooth gailu batzuekin konektatzeko.

Ajustes de Bluetooth: gailuaren izena eta ikusgai modua finkatzeko, eta beste gailu batzuk bilatzeko. Edota aldeaz aurretik konfiguratutako Bluetooth gailuen eta telefonoak Bluetooth gailuak bilatu zituen azken aldiaren atzemandako gailuen zerrenda.

Módem USB eta Mi zona Wi-Fi: USB ainguratzea eta WiFi eramangarriaren eremuaren konfigurazioa doitzeko.

Doikuntzak

Ajustes de red VPN: aldez aurretik konfiguratutako sare pribatu birtualen (VPN) zerrenda erakusten du. Zenbait VPN mota gehitzeko aukera ematen du.

Redes móviles: datu-desplazamenduaren, operadorearen eta sareko moduaren, sarbide-puntuaren izenen (APN)... aukerak konfiguratzeko.

Configuración de On-Screen Phone: On-Screen Phone-ren pasahitza aldatzeko (pasahitz lehenetsia: "0000"). On-Screen Phone-rekin, telefono mugikorraren pantaila ikus dezakezu ordenagailuan, USB konexioaren nahiz Bluetooth-aren bidez.

Ordenagailutik ere kontrola dezakezu telefono mugikorra, saguarekin edo teklatuarekin.

Deien doikuntzak

< Marcación fija >

Hautatu **Marcación fija**, zure telefonotik deitzeko zenbaki-zerrenda bat aktibatu eta konpilatzeko. Operadoreak emandako PIN2 kodea behar duzu. Markaketa finkoko zerrenda sortzen baduzu, zerrenda horretako zenbakietara bakarrik deitu ahal izango da telefonotik.

< Buzón de voz >

Servicio de buzón de voz: operadorearen ahots-postontziaren zerbitzua hautatzeko aukera ematen du.

Configuración de buzón de voz:

operadorearen ahots-postontziaren zerbitzua erabiltzen baduzu, ahots-postontzia entzuteko eta kudeatzeko erabiliko duzun telefono-zenbakia sar dezakezu.

< Otras opciones de llamada >

Mensajes de disculpa: dei bati uko egin eta berehala mezu bat bidaltzeko. Aukera hori erabilgarria da, bilera batean dei bati erantzun behar badiozu.

Desvío de llamadas: aukeratu dei guztiak desbideratzea, linea okupatua dagoenean, erantzunik ez dagoenean edo hitz egin ezin duzunean.

Bloqueo de llamadas: deiak noiz blokeatu nahi dituzun hautatzeko balio du. Sartu deiak murrizteko pasahitza. Galdetu sare-operadoreari zerbitzu honi buruz.

Rechazar llamada: deiei uko egiteko funtzioa ezartzeko. Aukeratu hauen artean: **Apagar, Rechazar en lista** edo **Rechazar todas las llamadas.**

Doikuntzak

Costes de llamadas: deiei aplikatzen zaizkien kostuak bistaratzeko. (Zerbitzu hori sarearen araberakoa da, eta zenbait operadorek ez dute funtzio hori onartzen).

Duración de la llamada: deien iraupena bistaratzeko, markatutako deiak, jasotako deiak eta azken deia barne.

Configuración adicional: parametro hauek aldatzeko:

Soinua

< General >

Modo silencio: soinu guztiak isiltzeko (dei-tonuak eta jakinarazpenekoak barne), musika eta bideoen audioak eta konfiguratutako alarmak izan ezik. Dagozkien aplikazioetan isildu behar dira alarmak eta multimedia fitxategiak.

Vibración: dei bat jasotzen duzunean, telefonoak dar-dar egin dezan.

Volumen: tonuen, multimedia-fitxategien eta alarmen bolumena doitzeko. Jakinarazpenetarako sarrerako deien bolumena erabiltzeko aukera ezeztatzen baduzu, sarrerako deien eta jakinarazpenen bolumena bakoitza bere aldetik doitu dezakezu.

< Llamadas entrantes >

Tono del teléfono: sarrerako deietarako telefonoaren tonu lehenetsia doitzeko.

< Notificaciones >

Tono de notificación: jakinarazpenen tonu lehenetsia doitzeko.

< Respuesta del teléfono >

Tonos táctiles sonoros: telefonoa konfiguratzeko, ukipen bidezko teklatuaren bidez zenbakiak markatzen direnean, tonuak jotzeko.

Selección sonora: telefonoa konfiguratzeko, ukitzean erreakzionatzen duten pantailako botoi, ikono edo bestelako elementuak ukitzen dituzunean soinua egin dezaten.

Doikuntzak

Bloqueo de pantalla: pantaila blokeatzean eta desblokeatzean soinua egin dezan konfiguratzeko telefonoa.

Pantaila

Brillo: pantailaren distira doitzeko.

Pantalla giratoria: ezarri aukera hori, telefonoa biratzean orientazioa automatikoki aldatzeko. Animación: ezarri aukera hori, animazio bat bistaratzeko.

Tiempo espera pantalla: pantaila deiak jasotzeko/egiteko modura itzultzeko igaroko den denbora finkatzeko.

Ubicación y seguridad

Usar redes inalámbricas: Usar redes inalámbricas hautatzen baduzu, telefonoak bere gutxi gorabeherako kokapena zehaztuko du WiFi-aren eta sare mugikorren konexioaren bidez. Aukera hori hautatzean, zerbitzu horiek emateko Google-ri zure kokapena erabiltzeko baimena ematen diozula berresteko eskatuko dizu.

Utilizar satélites GPS: Utilizar satélites GPS aktibatzen baduzu, telefonoak bere kokapena zehaztuko du (bereizmena kaleen mailakoa izango da).

Bloqueo pantalla: telefonoa segurtatzeko desblokeatze-eredua ezar dezakezu. Pantailaren desblokeatze-eredua sortzen lagunduko dizuten pantailak irekitzen ditu. Eredu baten ordeztu **PINa** edo **pasahitza** konfiguratu ditzakezu, edo **Ninguno** gisa utzi.

Telefonoa piztean edo pantaila aktibatzean, desblokeatze-eredua sortzea eskatuko dizu, pantaila desblokeatzeko.

Configurar bloqueo SIM/RUIM: SIM/RUIM txartela blokeatzeko edo horren PINa aldatzeko.

Contraseñas visibles: hautatu aukera hori pasahitza idatzi ahala bistaratzeko, edo ezeztatu aukera, pasahitza idatzi ahala ezkutatzeko.

Seleccionar administradores de dispositivos: administratzaile bat edo gehiago gehitzeko.

Utilizar credenciales seguras: ziurtagiri seguruetara sartzeko.

Doikuntzak

Instalar desde la tarjeta SD: hautatu aukera hau SD txarteletik ziurtagiri zifratuak instalatzeko.

Establecer contraseña: egiaztagiriak biltegitzeko pasahitza ezartzeko edo aldatzeko.

Borrar almacenamiento: gailuko kredentzietako edukiak ezabatzeko eta pasahitza berrezartzeko.

Aplicaciones

Aplikazioak kudeatzeko eta hasiera azkarreko sarbide zuzenak finkatzeko.

Orígenes desconocidos: erosketa-tokikoak ez diren aplikazioak instalatzeko aurrez finkatutako doikuntza.

Administrar aplicaciones: instalatutako aplikazioak kudeatzeko eta ezabatzeko.

Servicios en ejecución: exekutatzen ari diren zerbitzuak egiaztatzeko.

Uso de almacenamiento: aplikazioek zer biltegitze-leku erabiltzen duten ikusteko.

Uso de la batería: batería erabili duten aplikazioak bistaratzeko.

Desarrollo: aplikazioak garatzeko aukerak ezartzeko.

Kontuak eta sinkronizazioa

< Ajustes de sincronización generales >

Datos de referencia: aplikazioek datuak bigarren maila batean sinkronizatzea ahalbidetzen du, haiekin lanean ari nahiz ez. Aukera hau desaktibatuz gero, bateria aurreztu eta datuen erabilera murriztu (guztiz ezabatu gabe) ditzakezu.

Sincronización auto.: aukera honen bidez, aplikazioek beren programazioarekin

sinkronizatu, bidali eta jaso ditzakete datuak.

< Administrar cuentas >

Googleko kontu guztien eta telefonora gehitutako bestelako kontuen zerrenda. Kontu bat ukitzen baduzu pantaila honetan, kontuaren pantaila irekiko da.

Pribatutasuna

Fabrikako doikuntzak berrezartzen badituzu, ezabatu egingo dituzu telefonoko barne-biltegian dauden datu pertsonal guztiak, hauek barne: Googleko zure kontuko eta beste kontuetako informazioa, sistemako eta aplikazioetako datuak eta doikuntzak, baita deskargatutako aplikazioak eta DRM lizentzia.

Doikuntzak

Telefonoa berrezartzeak ez ditu ezabatzen deskargatutako sistemaren software-eguneraketak edota microSD txarteleko fitxategiak (musika, argazkiak...). Modu honetan berrezartzen baduzu telefonoa, Android abiarazi zenuen lehenengo aldian eskatu zitzaizun informazioa sartzeko eskatuko zaizu berriro.

Biltegiatzea

< Modo de conexión USB >

Almacenamiento masivo: telefonoa biltegiatze masiboko gailu gisa erabil daiteke memoria-txartel bat txertatua badu.

USB konexioaren doikuntza lehenetsia **Almacenamiento masivo** gisa defini dezakezu.

< Tarjeta SD >

Egiaztatu SD txartelean zenbateko lekua dagoen. Ukitu **Desactivar tarjeta SD** txartela segurtasunez ateratzeko. **Ezabatu SD txartela**, zure datu guztiak ezabatu nahi badituzu.

< Almacenamiento interno del teléfono >

Eskura dagoen espazioa egiaztatzeko.

Hizkuntza eta teklatura

Ezar itzazu tokiko hizkuntza eta eskualdea, baita teklatuaren doikuntzak ere.

Ahotsaren sarrera eta irteera

< Entrada de voz >

Reconocimiento de voz: erabil ezazu

Reconocimiento de voz ataleko aukerak, Android-en ahots-sarrerako funtzioa konfiguratzeko.

- **Idioma:** pantaila bat bistaratzen du, non esandako testuaren hizkuntza doitu

baitaiteke.

- **SafeSearch:** elkarrizketa-koadro bat irekitzen du, non ezar baitezakezu Googleren SafeSearch iragazkiak emaitza batzuk ezaba ditzan.
- **Bloquear palabras ofensivas:** desmarkatuta dagoenean, Googleren ahotsa ezagutzeko funtzioak, esandako testua sartzean, ezagutu eta transkribatu egiten ditu askorentzat iraingarriak diren hitzak. Aukera hori markatzen denean, Googleren ahotsa ezagutzeko funtzioak laukitxoekin (#) osatutako markagailu batekin ordeztu ditu hitz horiek transkripzioan.

Doikuntzak

< Salida de voz >

Configuración de síntesis de voz: erabili **Configuración de síntesis de voz** aukera Android-en ahots-sintetizagailua konfiguratzeko, hori erabil dezaketen aplikazioetan.

OHARRA: ahots-sintetizagailu baten datuak ez badituzu instalatuta, **Instalar archivos de datos de voz** doikuntza bakarrik egongo da eskura.

- **Escuchar un ejemplo:** ahots-sintetizagailuaren lagin labur bat erreproduzitzen du, uneko konfigurazioarekin.

- **Utilizar siempre mis ajustes:** aktibatu aukera hori pantaila horretako doikuntzak erabiltzeko, beste aplikazio batzuetan eskura dauden ahots-sintetizagailuaren parametroen ordez.
- **Motor predeterminado:** elkarrizketakoadro bat irekitzen du erabili nahi den ahots-sintesisrako aplikazioa ezartzeko, bat baino gehiago instalatuta baduzu.

- **Instalar archivos de datos de voz:** telefonoak ahots-sintetizagailu baten datuak ez baditu instalatuta, Android Market-ekin egiten da konexioa, eta datuen deskarga- eta instalazio-prozesuan laguntzen dizu. Aukera hori ez dago eskuragarri datuak dagoeneko instalatuta badaude.
- **Velocidad de voz:** elkarrizketa-koadro bat irekitzen du, sintetizagailuak hitz egingo duen abiadura hautatzeko.
- **Idioma:** elkarrizketa-koadro bat irekitzen du, sintetizagailuak hitz egingo duen hizkuntza hautatzeko. Hori bereziki praktikoa da **Utilizar siempre mis ajustes** aukerarekin konbinatzen bada. Hala

bermatzen da testua zuzen diktatzen dela hainbat aplikaziotan.

- **Pico TTS:** Pico TTS-ren doikuntzak konfiguratzeko.

Irisgarritasuna

Irisgarritasun-konfigurazioak erabili telefonoan instalatu dituzun irisgarritasun-osagarriak konfiguratzeko.

Doikuntzak

OHARRA: osagarri gehigarriak behar dira.

Data eta ordua

Erabili data eta orduaren doikuntzak, data agertzeko moduaren lehentasunak ezartzeko. Halaber, doikuntza horiek erabil ditzakezu zure ordua eta ordu-zona ezartzeko, sare mugikorreko uneko ordua eskuratu beharrean.

Acerca del teléfono

Lege-informazioa ikusiko duzu eta telefonoaren egoera eta softwarearen bertsioa egiaztatu ahal izango duzu.

Softwarea eguneratzea

Telefonoaren softwarea eguneratzea

LG telefono mugikorren softwarea Internet bidez eguneratzea

Funtzio horren erabilerari buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo helbide hauetako batera: <http://update.lgmobile.com> edo <http://www.lg.com/common/index.jsp>. Ondoren, hautatu herrialdea eta hizkuntza.

Aukera horren bidez telefonoaren firmwarearen azken bertsioa Internetetik modu erosoan eguneratu dezakezu, zerbitzu-zentrorra joan beharrik gabe.

Funtzio hori eskuragarri egongo da soilik LGk firmwarearen bertsiorik berriena zure gailuan eskuragarri jartzen badu.

Telefono mugikorraren firmwarea eguneratzeko programa lanean ari den bitartean, arreta jarri behar dio erabiltzaileak, harik eta prozesua erabat amaitzen den arte. Ezer egin aurretik, ziurtatu jarraibide eta ohar guztiak ulertzen dituzula. Eguneratzen den bitartean datuak transferitzeko USB kablea edo bateria kenduz gero, kalte egin diezaiokezu telefono mugikorrari.

Softwarea eguneratzea

OHARRA: LGk beretzat gordetzen du firmwarearen eguneratzeak hark egokitzen irizten duen modeloetan bakarrik eskaintzeko eskubidea, eta ez du bermatzen firmwarearen bertsio eguneratuak egongo direnik gailuaren modelo guztietarako.

LG telefono mugikorren softwarea haririk gabe eguneratzea

Funtzio honen bidez telefonoko softwarea erosotasun osoz eguneratu dezakezu haririk gabe, USB datu-kablea konektatu beharrik gabe. Funtzio hori eskuragarri egongo da soilik LGk firmwarearen bertsiorik berriena zure gailuan eskuragarri jartzen badu.

Lehendabizi, telefono mugikorrak egun duen softwarearen bertsioa egiaztatu behar duzu: **Ajustes > Acerca del teléfono > Actualización de software > Comprobar actualización software.**

Halaber, eguneratzea 1 egun, 4 ordu, 8 ordu edo 24 ordu atzeratu dezakezu. Hala eginez gero, dagokion unea heltzean, aplikazioak eguneratzea egiteko abisua bidaliko dizu. Halaber, eskuz egin dezakezu eguneraketa.

OHARRA: funtzio hori sareko zerbitzuen hornitzailearen, eskualdearen edo herrialdearen mende dago.

DivX Mobile **DIVX**

DIVX VIDEO-RI BURUZ: DivX LLCk, Rovi Corporationen enpresa subsidiarioak, sortutako bideo digitaleko formatua da DivX®. Gailu honek DivX bideoak erreproduzitzeko DivX Certified® ziurtagiri ofiziala du. Joan www.divx.com helbidera, zure fitxategiak DivX bideo-formatura bihurtzeko behar duzun informazio eta software-erreminta gehiago jasotzeko.

DIVX VIDEO-ON-DEMAND-I BURUZ: DivX ziurtagiri ofiziala duen gailu hau erregistratu egin behar duzu erosi dituzun DivX Video-on-Demand (VOD) filmak erreproduzitzeko. Erregistro-kodea

lortzeko, bilatu DivX VOD atala gailuaren konfigurazio-menuan. Joan vod.divx.com helbidera, erregistroa osatzeko moduari buruz informazio gehiago jasotzeko.

DivX Certified® bideoak erreproduzitzeko DivXen ziurtagiriarekin 320 x 240 arte erreproduzitu daiteke.

DivX®, DivX Certified® eta horiei lotutako logotipoak Rovi Corporation-en edo horren enpresa subsidiarioen marka komertzialak dira, eta lizentziapean erabiltzen dira.

Softwarea eguneratzea

Oharra:

Kode irekiko softwarea

GPL, LGPL, MPL eta kode irekiko beste lizentzia batzuei dagozkien iturri-kodea eskuratzeko, joan webgune honetara:
<http://opensource.lge.com/>

Lizentzia-baldintza guztiak, oharrak eta erantzukizunik ezaren oharrak deskargatzeko moduan daude iturri-kodearekin batera.

Osagarriak

Osagarri hauek daude eskura, LG-E510ekin erabiltzeko. **(Hemen deskribatzen diren elementuak hautazkoak izan daitezke).**

Bidaiarako
egokigailua



Datu-kablea

LG-E510
telefonoa PCra
konektatzeko.



Bateria



Erabiltzailearen
eskuliburua

Eskuratu LG-E510
telefonoari buruzko
informazio gehiago.



Entzungailu
estereofonikoak



OHARRA:

- Erabili beti LGren jatorrizko osagarriak.
- Hori egiten ez baduzu, bermea bertan behera gera daiteke.
- Osagarriak ezberdinak izan daitezke herrialdearen arabera.

Datu teknikoak

Giro-tenperaturak

Max.: +55 °C (deskarga), +45 °C (karga)

Min: -10 °C

Adostasun-deklarazioa



Ornitzaileen datuak

Izena

LG Electronics Inc

Helbidea

LG Electronics Inc, LG Twin Towers 20,
Yeouido-dong, Yeongdeungpo-gu, Seoul, Korea 150-721

Produktuaren informazioa

Produktuaren izena

GSM 850 / E-GSM 900 / DCS 1800 / PCS 1900 Quad Band and WCDMA Terminal Equipment

Modeloaren izena

LG-E510

Marka

LG

CE 0168

Aplika ditezkeen estandarrak

RoTTE Directive 1999/5/EC

EN 301 489-01 V18.1, EN 301 489-02 V1.2.1

EN 301 489-03 V2.1.1, EN 301 489-04 V1.2.1, EN 301 489-04 V1A.1

EN 301 511 V9.0.2

EN 301 908-1 V1.2.1 EN 301 908-2 V1.2.1,

EN 300 328 V1.3.1

EN 50360:2001/EN62209-1:2006

EN 60950-1 : 2006

Informazio gehiago

Gure ardurapean, aitortzen dugu deklarazio horien arde den produktuak arnasan aipatutako estandar eta direktibak guztiak betetzen dituela.

LG Electronics Inc. - EU Representative
Wiluwecoom 15, 1327 AE Almere, The Netherlands

Adostasun-deklarazioa

Gure ardurapean, aitortzen dugu deklarazio horien arde den produktuak arnasan aipatutako estandar eta direktibak guztiak betetzen dituela.

Izena
Gao Hong Lee / Junsu Park

Data
2020ko irailaren 10

LG Electronics Inc. - EU Representative
Wiluwecoom 15, 1327 AE Almere, The Netherlands

Ordezkariaren sinadura

Arazoak konpontzea

Kapitulu honetan, telefonoa erabiltzean sor daitezkeen zenbait arazo deskribatzen dira. Horietako batzuk konpontzeko, zure zerbitzu-hornitzaileari deitu beharko diozu. Hala ere, arazo gehienak zuk zeuk konpontzeko modukoak dira.

Mezua	Zergatia	Konponbidea
Errorea SIM txartelean	SIM txartela ez da telefonoan sartu, edo ez dago ondo sartuta.	Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.

Arazoak konpontzea

Mezua	Zergatia	Konponbidea
Sare-konexiorik gabe/Konexioa galdu egiten da	Seinale ahula edo zerbitzu-hornitzailearen zerbitzutik kanpo. Operadoreak zerbitzu berriak aplikatu ditu.	Joan leiho batera edo eremu ireki batera. Egiaztatu sare-operadorearen estaldura-mapa. Egiaztatu SIM txartelak 6-12 hilabete baino gehiago dituen. Hala bada, aldatu SIM txartela zure sare-hornitzailearen bulegoan. Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
Kodeak ez datoz bat	Segurtasun-kode bat aldatzeko, kode berria sartu behar duzu, hori berresteko. Sartu dituzun bi kodeak ez datoz bat.	Aurrez definitutako kodea 0000 da. Kodea galdu egin baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Mezua	Zergatia	Konponbidea
Ezin da aplikazio bat ere exekutatu	Zerbitzuen hornitzaileak ez du funtzio hori onartzen edo erregistratu egin behar da.	Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
Ezin da deirik egin	Gaizki markatu duzu. SIM txartel berria sartu duzu. Aurrez ordaindutako karguen mugara heldu zara.	Sare berria ez dago baimenduta. Egiaztatu muga berriak. Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, edo ezarri berriro muga PIN2 kodea erabilia.

Arazoak konpontzea

Mezua	Zergatia	Konponbidea
Ezin da telefonoa piztu.	Aktibatze eta desaktibatze teklak oso azkar sakatu da. Bateria ez dago kargatuta. Bateriaren kontaktuak zikinak daude.	Sakatu aktibatze eta desaktibatze teklak bi segundoz, gutxienez. Kargatu bateria. Egiaztatu pantailako karga-adierazlea. Garbitu bateriaren kontaktuak.

Mezua	Zergatia	Konponbidea
<p>Errorea kargatzean</p>	<p>Bateria ez dago kargatuta. Kanpoko tenperatura altuegia edo baxuegia da Kontaktu-arazoak Ez dago tentsiorik Kargagailu akastuna. Okerreko kargagailua Bateria akastuna</p>	<p>Kargatu bateria. Egiaztatu telefonoa kargatzen dela giro-tenperaturan. Egiaztatu kargagailua eta telefonoaren konexioa Egiaztatu bateriaren kontaktuak eta garbitu, beharrezkoa bada. Entxufatu kargagailua beste hartune batean. Kargagailua berotzen ez bada, ordeztu. LGren jatorrizko osagarriak soilik erabili. Aldatu bateria.</p>

Arazoak konpontzea

Mezua	Zergatia	Konponbidea
Baimenik gabeko zenbakia	Markaketa finkoko funtzioa aktibatuta dago.	Egiaztatu Ajustes menua eta desaktibatu funtzioa.
Ezin da SMS eta irudirik jaso/bidali	Memoria betea	Ezabatu telefonoko zenbait mezu.
Fitxategiak ezin dira ireki	Fitxategi-formatua ez da bateragarria	Kontsultatu bateragarriak diren fitxategi-formatuak
SD txartela ez dabil	FAT16 eta FAT32 fitxategi-sistemak bakarrik onartzen dira.	Egiaztatu SD txartelaren fitxategi-sistema txartel-irakurgailuaren bidez, edo formateatu SD txartela telefonoarekin.

Mezua	Zergatia	Konponbidea
Pantaila ez da pizten dei bat jasotzen dudanean	Hurbiltasun-sentsorearen arazoa	Babes-geruza edo karkasa erabiltzen bada, egiaztatu hurbiltasun-sentsorearen inguruko eremua ere estalita dagoen. Egiaztatu hurbiltasun-sentsorearen inguruko eremua garbi dagoela.
Soinurik ez	Bibrazio-modua	Egiaztatu soinu-menuaren konfigurazioa zein den, modu isilean edo bibrazio-moduan ez dagoela ziurtatzeko.
Gailua blokeatu egiten da	Software-arazo etena	Kendu bateria, sartu berriro, eta piztu telefonoa. Saiatu softwarea eguneratzen webgunearen bidez.

Mezua	Zergatia	Konponbidea
Telefonoa blokeatuta dago eta ez du funtzionatzen.	Telefonoa berrabiaraztea	<ol style="list-style-type: none"><li data-bbox="855 218 1128 256">1. Itzali telefonoa.<li data-bbox="855 275 1231 313">2. Atera bateriaren tapa.<li data-bbox="855 332 1106 370">3. Sartu bateria.<li data-bbox="855 389 1026 427">4. Itxi tapa.<li data-bbox="855 446 1248 484">5. Berriro piztu telefonoa.



LG

Life's Good

BETI ERANTZUTEKO PREST GAITUZU

Laguntza behar duzun bakoitzean, gurekin jar zaitezke harremanetan gure webgunearen bidez edo gure Bezero Arretako zentroaren bidez.

www.lg.com

Bezeroarentzako arreta

902 500 234

BERME-GUTUNA

TELEFONIA MUGIKORRA

- 1.- Gorde txartel hau –behar bezala beteta eta saltokiaren zigiluarekin– eta erosketaren ordainagiria bermealdi osoan.
- 2.- Konponketa-zerbitzuak behar badituzu, berme-txartel hau erakutsi behar duzu.
- 3.- Gure produktuei buruzko informazioa behar baduzu edo zalantzaren bat argitu edo kontsultaren bat egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan gure web-orriaren bidez edo bezeroarentzako arreta-zerbitzuko linearen bidez.
- 4.- Irakurri arreta handiz berme-txartel honen edukia.

BERME KOMERTZIALAREN ZIURTAGIRIA

LG ELECTRONICS ESPAÑA SAU-K KONPROMISOA HARTZEN DU BERME HONEN
ESTALDURA-BALDINTZAK BETETZEKO

BERMEAREN BALIO-BALDINTZAK

1. LG ELECTRONICS ESPAÑA, SAK inportatutako edo merkaturatutako produktu ofizialetarako soilik da berme hau. Bermeaz baliatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

(1.1) Salmentaren aurreko epean, saltokiak gailuaren modeloa eta IMEI-zenbakia adierazi behar ditu.

(1.2) Berme Komertzialaren epean (azken bezeroa) NAHITAEZKOA izango da, saltokiak behar bezala Berme Komertzialeko Gutun honekin batera, jatorrizko erosketa-tiketa edo faktura izatea. Dokumentu horretan, gailuaren modeloa eta IMEIa agertu behar dira.

2. Bermea baliozkoa izateko, EZINBESTEKOA DA azken bezeroak edo saltokiak bermean adierazitako ataletako datu guztiak betetzea gailua erosten den unean.
3. LG ELECTRONICS ESPAÑA, SAUk laguntza-sare teknikoan dituen zerbitzu tekniko baimenduak erabiliz gero soilik balia daiteke bermeaz.
4. Gailua eskuliburuan zehazten diren jarraibideen arabera erabili behar da.

BERMEAREN INDARRALDIA

1. Bermea LG ELECTRONICS ESPAÑA SAUk komertzializatutako telefonia mugikorreko gailu guztiei aplikatzen zaie.

Hau da bermealdia:

- Gailu mugikorra (terminala): 2 urte.
 - Osagarriak: 2 urte.
 - Baliabideak edo software-euskarria (CD-ROMak, memoria-txartelak, USB eta abar): 90 egun.
2. Bermea aplikatzen hasiko da erosketatik aurrera (fakturaren data), eta erosketatik horretan (fakturaren data horretan) indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera da.
 3. LG ELECTRONICS ESPAÑA SAUk konpondutako edozein pieza edo produktu bermatzen du emate-datatik hasita hurrengo laurogeita hamar (90) eguneko epean, edo bermea amaitu arte, bi epeetan luzeena dena aplikatuta. Bermealdian ordezkaturako hardware-osagai guztiak ELECTRONICS ESPAÑA SAUrenak izango dira.

BERMEAREN ESTALDURAK

OHAR GARRANTZITSUA

1. Merkataritza-berme honek ez die eragiten 2007ko azaroaren 16ko 1/2007 LEDaren arabera (2007ko azaroaren 30eko BOE, 287. zenb.) azken bezeroak dituen eskubideei, berme honekiko independenteak eta bateragarriak direlako, nahiz eta saltzailearen adostasunik ez izan.
2. 1/2007 LEDaren V. atalean aurreikusiaren arabera, azken bezeroak eskubidea du legeak zehaztutako kasuetan saltzaileari eta/edo ekoizleari produktua konpontzeko eta ordezteko eskatzeko, bai eta, hala badagokio, prezioa merkatzeko edo kontratua bertan behera uzteko ere, neurriz kanpoko ez bada behintzat.
3. Dokumentu honetako eskubideak eta estaldurak izango ditu merkataritza-bermearen titularrak, estatu osorako.

4. Dokumentu honetako eskubideak eta estaldura erreklamatzeko, bezeroarentzako arretako gure zenbakia erabil dezake bezeroak; bestela, idatziz jo dezake bulego nagusietara edo zerbitzu teknikoen zentzora edo ohiko jurisdikzio-bidera jo dezake.
5. Konponketak iraun bitartean, ez da kalte-ordainik ordainduko gailua zerbitzutik kanpo egongo den denborarengatik.
6. LG ELECTRONICS ESPAÑA SAUK ez ditu bere gain hartzen gailu batek kanpo-elementuetan eragin ditzakeen kalteak.
7. LG ELECTRONICS ESPAÑA SAUren bermeak estatu espainiar osorako jatorrizko inprimakia ordeztzen du.

DATU PERTSONALEN BABESA

1. 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, jakinarazten dizugu merkataritza-bermeko zerbitzua emateko nahitaezkoak diren datu pertsonalak LG ELECTRONICS ESPAÑA, SAUren ardurapeko RGDko fitxategi batean sartuko direla, zuri zerbitzua emateko eta produktuei, zerbitzuei eta halakoei buruzko informazioa izateko. Datu horietara sartzeko, aldatzeko eta ezeztatzeko eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, sinatutako idatzi bat eta NANaren fotokopia bidali behar dituzu helbide honetara: Departamento Legal, c/ Chile 1, 28290 Las Rozas (Madrid).

BERMEAREN SALBUESPENAK

1. Aurretik aipatutako baldintzak ez betetzea.
2. Berme-ziurtagiri honetan zehaztu edo sartu ez diren gailuaren barneko zein kanpoko osagai edo osagarri guztiak edo jatorrizkoaren produktuaren osagarri ez direnak.
3. Erabiltzaileari gailua abian jartzea, konfiguratzeko eta funtzionamenduaren erakustaldiak.
4. Matxura suteen, uholdeen, eragile meteorologikoen, kolpeen edo zanpatzeen ondorioz gertatzen bada, edo tentsio edo energia desegokia aplikatzen bazaio edo gaizki konektatuta badago.
5. Gaizki erabiltzeagatik kalteak, garraioan izandako kalteak barne –garraio-konpainiarekin langileei erreklamatu behar zaie; beraz, emate-agiriak berretsi baino lehen paketeak ikuskatzea komeni da–.
6. Haustura fisikoen ondorioz gertatutako matxurak –karkasak, plastikoak, pinturak, esmalteak, kristalak, edergarriak eta antzekoak–.

7. Gailuekin batera datozen funtzionamendu- eta erabilpen-jarraibideei kasurik ez egiteagatik eta/edo gaizki erabiltzeagatik matxuratzea.
8. Egokiak ez diren osagarri elektronikoak erabiltzeagatik gertatutako matxurak.
9. Ukipen-pantailetan gailu zorrotzak oker erabiltzea.
10. IMEI zenbakirik eta serie-zenbakirik ez duten gailuak, aldatuta edo ezabatuta dituztenak, edo berme-ziurtagiriko edo erosketa-fakturako zenbakiarekin bat ez datozenak.
11. Sarea aktibatzeke behar den IMEIa eta Abonatu-zenbakia lotzeak berekin dakartzan arazoak.
12. Gailua LG ELECTRONICS ESPAÑA SAUk baimendu gabeko pertsonak konpontzea edo maneiatzea.
13. Erabileragatiko ohiko narriadurak eragindako matxurak (bateriena, kameren lenteena, pantailena, entzungailuena edo kanpoko esku librekoena barne).
14. Berme-ziurtagiri honetan sartutako edo zehaztutako barne- edo kanpo-osagarri batek edo jatorrizko produktuaren zati ez den osagarriak sortutako matxura.

15. Indarrean dagoen araudiak edo fabrikatzaileak (LG ELECTRONICS ESPAÑA SAU) ezarritakoa gainditzen ez duten pixel-akatsak.
16. Disko gogorretan, egoera solidoko diskoetan edo memorietan gordetako informazioaren galera. Azken bezeroa du bere datuen segurtasun-kopia bat egiteko ardura, ekipoa zerbitzu teknikoari eman aurretik.
17. Zerbitzu ofizialera konpontzera eramatean ekipoa dagoen edozein informazio-euskarri fisiko.
18. Aurretik kargatutakoak ez diren sistema eragileak eta/edo originalak ez diren programak eta/edo horien funtzionamendua.
19. Fabrikatzaileak (LG ELECTRONICS ESPAÑA SAU) ofizialki onartu gabeko edo homologatu gabeko software-eguneratzeak edo bertsio berriak, jatorria edozein dela ere.
20. Birus batek edo bestelako programa maltzurren batek eragindako kalteak edo gailuaren hutsak.
21. Bateriak, elementu kontsumigarria direnez, haien bizitza erabilgarrian daude bermatuta (erreferentzia gisa, bateriek 1 urteko bermea izan ohi dute).

ERABILTZAILEAREN ETA PRODUKTUAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

POSTA-KODEA:

HERRIA:

PROBINTZIA:

TELEFONOA:

EROSKETA-DATA:

MODELOA:

IMEI ZK.:

SALTOKIAREN ZIGILUA:

**ESTABLEZIMENDUAK EDO DENDAK DATU GUZTIAK BETE BEHAR DITU
SALEROSKETAREN UNEAN**

SALTOKIAK DATU GUZTIAK BETE BEHAR DITU SALEROSKETAREN UNEAN

**LG ELECTRONICS ESPAÑA SA-REN
ZERBITZU TEKNIKOEN ZENTRALA**

Pol. In. El Oliveral industrialdea, 13. sektorea,
27. partzela. A Ribarroja del Turia – 46190
VALENTZIA Tel: (+34) 902 .500. 234

BERME-TXARTEL HAU
BESTERENEZINA DA ETA
JATORRIZKO EROSLEARI SOILIK
APLIKATZEN ZAIO. BETE ITZAZU
ESKATUTAKO DATUAK ETA
EROSKETA-FAKTURAREKIN
BATERA GORDE TOKI SEGURUAN.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008